

Astore Korean

Esteban Uribesalgo izan da gurekin
ELKARRIZKETA, 10



Abuztuko kultura eskaintza

Musika, antzerkia, zinea eta nahi beste jai aukeran
KULTURA, 23

Gurutz Larrea

14. Espainiako txapelketan
KIROLAK, 18



ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2005eko uztailaren 25a • 2. urtea • 67. zenbakia • 0,90 euro



AINZANE AGIRRE

ZAPIRAIN NAGUSITU ZEN ARAMAIOKO RALLYSPRINTEAN

Santi Artetxe zen favoritoa, baina Joseba Zapirain abila goa izan zen eta berak jantzi zuen txapela Aramaion jokatu zen IV. rallysprintean. 30 pilotuk jokatu zuten

proba. Debagoiendar bikote bakarra aritu zen: Gargartzako Orobengoa anaiak. Hemeretzigarrenak izan ziren txapelketako azkenaurreko proban.

Epelera iritsiko da AP1 egubakoitzean

Arrasateraino autobideaz joan ahal izango da egubakoitzetik aurrera. 3,5 km ditu errepide zati berriak 2-3

ORDAINLEKUA EPELEN

Bergararik Arrasaterainoko autobide zati berriko ordainlekua Epelen jarri dute

BI TUNEL

Ikastaundiko tunelak 1,2 km ditu, Elorregitik Arrasateraino. Aristikoa 0,3 km luze da

URTEMUGAN

AP1 autobidearen bigarren zatia zabaldu zutenetik lehenengo urtemuga betetzen den egunean irekiko dute zati berria

BIDESARIA

Bihar, martitzena, adostuko dituzte ibilgailu bakoitzarendako prezioak
Diputatuen Kontseiluan



AINZANE AGIRRE

Epelako ordainlekuak lau autorentako tokia dauka norabide bakoitzean.

Zilarrezko Q kalitate saria Bergarako Geyser Gastechi

Euskalit Fundazioko kalitatearen saria jasoko du Bergarako Geyser Gastech enpresak etzi, eguaztena. Fagor Altzariak enpresari ere emango diote. 11

Anbulatorioa inauguratuko dute

Eguenean egingo dute inaugurazio ofiziala Arrasaten

Gabriel Inclan osasun sailburua izango da Arrasaten eguenean ambulatorioaren inaugurazio ekitaldian. Pediatria, barne-medikuntza, errematologia, anestesia, endokrinologia, kardiologia, ginekologia eta odontologia espezialitateak hartzen ditu ambulatorio berrituak. 7

Potemkin hasi da grabatzen


Gaur hasiko dute oñatiarrek lehenengo diskoaren grabaketa 22

Oporretan irailera arte

Kaixo, irakurle. Udako oporraldia dela-eta, ASTELEHENEKO GOIENKARIAK ere etenaldia egingo du irailera bitartean. Hurrengo zenbakia irailaren 5ean kaleratu dugu. Hortaz, ordu arte, ondo ibili oporretan.

GEUREAN

- Albina urtegia, bainua hartu eta arrantzan egiteko beste aukera bat | 6
- Degurixan izan dira kanpaldian elbarriren bat dutenek | 8-9



MUko diseinu
industrialeko
ikasle talde batek
bizikletentzako
parkina sortu du | 4

AP1 AUTOBIDEA ARRASATERAINO



ENKO AZKARATE

Epeleko ordainlekua atontzen eta azken ukituak ematen dihardute jo eta ke egunotan, barikurako dena prest egon dadin.

ERREPIDEAK | BERGARA HEGOALDETIK EPELERAINO DOAN ZATIA ZABALDUTA, 15'1 KILOMETRO IZANGO DITU AP1 AUTOBIDEAK

Egubakoitzean zabalduko dute AP1 autobidearen Epelerainoko zatia

Uztailaren 29an inauguratuko dute. 3,5 kilometro dauzka zati berriak. Epelen egongo da ordainlekua eta martitzenean erabakiko dute bidesariaren zenbatekoa

I. Agirreazaldegia/A. Irizar

AP1 autobidearen bigarren zatia (Bergara iparra-Bergara hegoa) zabaldu zutenetik lehen urtemuga betetzen den egunean, uztailaren 29an, egubakoitza, zabalduko dute hirugarren zatia, Bergara hegoaldeetik Epeleraino doana.

Autopistako gainontzeko zatiak bezala lau errail izango ditu, bakoitza 3,50 metrokoa zaba-

leran; bazterbideak, berriz, eskuintekoak 2,50 metrokoak dira eta ezkerrekoak metro batekoak.

3,5 kilometro izango ditu errepide zati horrek, horietatik 1,5 kilometro lur azpitik. Izan ere, bi tunel dauzka: Ikastaundikoa (1,2 km.)bata, Elorregin hasi eta Arrasateraino doana eta Aristikoa (0,3 km) bestea.

Aipatzekoa da, Europako arauari jarraituz, tuneletan aparteko segurtasun neurriak ipini

dituztela. Horretarako ekipamendu berezia izango dute: argiztapena, larrialdietarako zutabak suitzalgailuekin, aireztapena, ke detektatzaileak, airearen abiadurarentzako detektatzaileak, sua dagoela igartzeko eta itzaltzeko sistema, ebakuazio galeriak 250 metrotik behin oinezkoendako eta 750 metrotik behin ibilgailuendako, argi panelak, kamera zein irrati bidezko barruko sarea, megafonia eta galiboa kontrolatzeko sistema.

Zubi bide bat ere badauka autobidearen hirugarren zati horrek, Elorregi auzoan hau ere, biribilgunetik Oñati alderako errepidea hartzen dugun tokian, hain justu ere.

Zati horri dagokion ordainlekua Epelen egongo da; baina oraindik erabaki barik dago zen-

batekoa izango den bidesaria. Bihar, martitzena, adostuko dituzte ibilgailu bakoitzarendako prezioak Diputatuen Kontseiluan.

Autobidearen zati berriak bi tunel ditu: Aristikoa eta Ikastaundikoa

Obrek 87 milioi euroko kostua izan dute; orografia konplexuak eragin du hain prezio altua

IA LAU URTEKO LANAK

Orain dela ia lau urte hasi zituzten hirugarren zatia eraikitzeko lanak. 2003an Ikastaundikoa tuneleko ezker hormatik lurra erori zen, baina horrek ez zuen aparteko arazorik eta atzerapenik eragin obretan.

Obrek guztira 87 milioi euroko kostua izan dute. Hain zati laburra egiteko hainbeste diru behar izatearen arrazoia da inguru horretako orografia konplexua; eta horri aurre egiteko tunelek eta zubi bideak eraikitzea.

Inaugurazio ekitaldian Diputatu nagusia eta Arabako eta Gipuzkoako diputazioetako, Eusko Jaurlaritzako zein Udaletako beste hainbat agintari izango dira. Behin inauguratuta ibilgailuendako zabalduko dute egun berean bertan.

API AUTOBIDEA ARRASATERAINO

• EIBAR-GASTEIZ AUTOBIDEA ARRASATERAINO HELDUKO DELA-ETA, ZER BALORAZIO EGITEN DUZU?



ESTHER URKIA |
NACEX GARRAIO ENPRESA

“Autobidea ederto datorkigu, erlojuaren kontra egiten dugu-eta lan; minutu bakoitzak balio handia dauka”

“Autobidea Arrasateraino iristea aurrerapen handia da guretako. Kontuan izan, pre-sazko gauzak garraiatzeko etortzen dela jendea guregana, eta hamabost minutu aurre-eratzeko gauza handia da. Erlojuari begira egiten dugu lan, eta guretako minutu bakoitzak balio handia du. Horrez gainera, auto-bidean segurtasun handiagoa egoten da, eta neguan zailtasun gutxiago”.



FERNANDO SANCHEZ |
ZIORLA GARRAIOAK, KAMIOI GIDARIA

“Irunera joateko kamioiarekin ordu eta erdi behar badugu, autobidearekin ordubetean iritsiko gara”

“Jendeak kontuan izan behar du autobidea auto gidariendako garrantzitsua bada, kamioi gidariendako askoz ere garrantzitsuagoa dela, proportzioan denbora askoz ere gehiago aurrezten dugulako. Donostiara joateko, Europa aldera egiteko... Bezeroari azkarrago eskaini ahal izango diogu zerbitzua, eta lan gehiago egin ahal izango ditugu. Txarrena, garestia izango dela”.



INAXIO OLIVERI |
MU-KO ERREKTOREA

“Debagoienak behar ditu garraio bide hobek; unibertsitate mailan, ikasleak erakartzeko balioko du”

“Ondo ospatzeko moduko albistea da hori, aurrerapen handia izango delako guretako. Debagoienak behar ditu garraio bide hobek, bai pertsonendako eta baita enpresen jardunerako ere. Kostaldetik gertuago egonda, inguru hauek ezagutzen ez dituen jendea errazago etorriko da. Unibertsitateari dago-kionez, ikasleak erakartzeko baliagarria izango da, eta erosotasunean irabaziko dugu”.

Arrasatetik Eskoriatzara 2007 amaieran

Uztail amaieran aterako dituzte lehiaketara autobidearen laugarren zatia eraikitzeko lanak. Epeletik Eskoriatza iparrerraino joango da zati hori, eta 6,3 kilometro izango ditu. 2005. urtean hasi eta 2007ko bukaerarako amaitzea aurrekusi dute.

Arlabango tunela Euskal Herriko luzeena


Iazko irailean hasi ziren Arlabango tunela zulatzen Gipuzkoatik; Arabatik, berriz, uztailean. Euskal Herriko luzeena izango da, 3.377 metrorekin. Autobideko lanak 2007. amaierarako egingo dituzte, baina tunela ekainerako amaitzea aurrekusi dute.

Autobidean 100 km/h abiaduran

Autopistaren ibilbidea diseinatu dago batez beste 100 km/h. abiaduran ibiltzeko. Gutxieneko erradioa 600 metrokoa da eta gehieneko malda %4,5koa. Bilbao-Behobia autobidearekin alderatuz gero, erosoagoa da; izan ere abiadura 80 km/h.koa da bertan.

Beasaindik Durangorakoa eta API bat eginda

Beasain-Durango zeharkako ardatzak eta API autobideak bat egingo dute, justu, barikuan zabaltzera doazen zati horretan. Osterantzean, Zumarragatik Bergararainoko zatia, 2010. urterako egingo dute; 6,7 km izango ditu eta 100 milioi euro kostatuko da.



INAZIO LAKUNTZA |
ARRASATEKO ALKATEA

“Erosotasuna eta segurtasuna emango dizkigu, eta merkantziendako oso inportantea izango dela uste dut”

“Autobide horrek erosotasuna eta segurtasuna emango dizkigu batez ere. Bergararik Arrasaterako oraingo errepidea oso deserosoa da, eta segurtasun aldetik oso txarra. Bestalde, merkantziendako oso inportantea dela uste dut. Ez dira autoekin horrenbeste nahastuko eta auto-ilara gutxiago izango dira. Horrez gainera, lagunduko digu sentitzen Gipuzkoa barruan gaudela, sare berean”.



JESUS MARIA INSUNZA |
JMA ENPRESAKO GERENTEA

“Abantaila positiboak izango ditu, bai enpresaren ikuspuntutik eta baita maila pertsonalean ere”

“Enpresaren ikuspuntutik argi dago abantaila handia izango dela, merkantziek sarbide sinplea, bizkorra eta segurua izango dutelako. Guk produkzioaren %54 esportatzen dugu eta guztia pasatzen da Irundik. Eta maila pertsonalean, begira, ni 73an hasi nintzen etortzen eta orain eta orduan, errepideak antzera daude. Gernikatik ordu bete behar dut; laster, 40 minutuan etorriko naiz”.



MARCOS LUCERO |
IBAI ARTEKO ORDEZKARIA

“Autobide horri esker gehiago ikusiko gaituztela uste dut, gehiago ezagutuko gaituztela”

“Ona izango da, inguruko herriak lotuko dituelako eta horrek ekarriko du Arrasate gehiago haztea. Eta uste dut inguruko herriek ikusten dutenean autobidea zabaldu dutela, Arrasatera etortzea errazago izango dute. Arrasate osatuago dagoela uste dut orain. Horrez gainera, autobideari esker gehiago ezagutuko gaituztela ere pentsatzen dut, Arrasate dezente ondo prestatuta dagoelako”.



Bergarako Olan hasi eta Epeleraino doa zabalduko duten zatia.



Arrasatetik Bergararantz, Astiko tunelak zeharkatu behar dira.



Elorregin Ikastaundiko tuneletan sartu (1,2 km) eta Epeleraino.

PROTOTIPO ERAKUSKETA | ZORTZI PROTOTIPO AURKEZTU DITUZTE DONOSTIAN MU-KO DISEINU INDUSTRIALEKO IKASLEEK

MUko ikasleek 2020. urtean erabiltzeko proiektuak sortu dituzte

Diseinu industrialeko 3. mailako ikasleek landutako prototipoak egon dira ikusgai barikura arte

2020. urteari begira landu dituzte prototipoak, orduko problematikak eta baliabideak kontuan hartuta

Larraitz Zeberio

Mondragon Unibertsitateak urtero egiten du erakusketa diseinu industrialeko 3. mailako ikasleek ikasturtean landutako prototipoekin. Aurten, gainera, Donostiara ere eraman dituzte lanok, Industri Ingeniarien elkargo ofizialaren egoitzara, hain zuzen ere.


Uztaileko lehen bi asteetan egin zuten erakusketa Arrasaten. Hamasei prototipo egon ziren orduan ikusgai. Donostiara zortzi prototipo, erdiak, eraman dituzte diseinu industrialeko ikasleek. “Maketak unibertsitatekanpo erakusteko aukera izan dugu”, esan digu Felix Zugasti irakasleak, “eta beste jende bati hurbiltzeko aukera izan dugu. Oso pozik gaude”. Proiektuak 2020. urtera begira egin dituzte ikasleek. Osasuna, aisia, etxebizitza, garraioa, kirola... gaia zabala zen.

16 prototipo landu dituzte 3. mailako ikasleek. Zortzi egon dira ikusgai Donostian

Ikasleek produktu baten sorkuntza prozesua osatzen duten atal guztiak jorratzen dituzte

2020. URTERA BEGIRA

Gai oso librea izan dute aurten ikasleek. Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako *Erreflexio Estrategikoak Gipuzkoa 2020* txosteneko ondorioak hartu dituzte abiapuntutzat MUko ikasleek.



Bizikletendako banakako aparkalekua duzue irudian. Hatz markarekin zabaltzen dira aparkalekuok.

“Zein problematika dagoen aztertu eta produktu bideragarriak ateratzen saiatzen dira ikasleak”, argitu digu Felix Zugastik.

Etorkizuneko etxebizitza txikiararako dutxa eta konketa bateratzen dituen tresna, bizikletak autobusetan eramatea ahalbidetuko duen plataforma, ume ezin duen mugikortasuna hobetuko

duen makina, etxetik kanpo bazkaltzen dutenendako edukiontzi berritzailea... Lau ikasleko taldeetan landu dituzte prototipo hauek MUko ikasleek. “Produktu bat atera behar dute aurrera eta ikasten dute sorkuntza prozesu horren atal guztiak zeintzuk diren eta nola bideratzen diren”, gaineratu digu Felix Zugasti irakas-

leak. “Ideia landu, materialak aukeratu, produktua definitu, saldu... hasieratik bukaerainorako lana egiten dute”.

Irakasleen laguntza jaso dute ikasle hauek, baina ezin da ukatu tresna interesgarriak sortu dituztela. Agian, laster, prototipo hauetako bat komertzializatua ikusteko aukera izango dugu.

• ERAKUSKETAN IKUSGAI EGON DIREN ZENBAIT PROIEKTU



GIPUZKOA BASTOIA. Itsuendako GPS sistema du heldulekuan. “2020. urtean *Galileo* sistema garatuta egongo da European eta berau integratuko genioke”, azaldu digu sortzaile taldeko Ander Uberak. Aurikularra eta mikrofonoa ere baditu bastoia, erabiltzaileak informazioa eskatu eta jasotzeko Blue-tooth sistema bidez. Egileak: Maria Sanchez, Endika Egia, Paula Arnal eta Ander Ubera.



HOTTER. Gero eta gehiago dira etxetik kanpo bazkaltzera behartuta daudenak. Laster, edukiontzian eraman behar dugu bazkaria lanera. Proiektu honek hainbat konpartimentu ditu. Kanpoko eraztuna janaria berotzeko pentsatuta dago. Norberak erabakitzen du zein konpartimentu berotu nahi duen. Egileak: Paul Garatea, Itsaso Gonzalez, Itsaso Zubeldia eta Alba Idigoras.



SECUR BOX. Hondartzan lapurretak ekiditeko kutxa duzue hau. Giltzarekin ixten da eta hondartzako haretan sartzen da. Giltza eskumuturrean eramaten du erabiltzaileak eta kutxa toalla azpian ezkutatu daiteke. Buruki forma duenez gero, kutxa eguzkia eroso hartzeko ere erabil daiteke. Egileak: Aineze Hondartza, Izortze Llaguno, Joana Sopena eta Nerea Egidazu.

Etorkinak eta Euskal Udal Legea berbagai izan zituzten Arrasateko udaletxean

Bestelakoan artean, hiru mozio landu eta onartu zituen barikuan Arrasateko udalbatzarrak. Mozioetako bi etorkinekin lotutakoak ziren.

Ubane Madera

Hirugarren mozioa, berriz, PPK aurkeztutakoa, udal eskumenen gainekoa zen. Hain zuzen ere, aldeko 12 botoekin (PSE-EE, EB, EA, Aralar eta PP) eta EAJren abstentzioarekin zera onartu zuten: Legebiltzarrari eskatzea 2007rako Euskal Udal Legea onar dezan, modu horretan, udalek orain baino kompetentzia gehiago izateko. EAJren abstentzioa justifikatzeko, Inazio Lakuntza alkateak adierazi zuen gai hori Legebiltzarran landu beharrekoa dela, eta ez udaletan. Bestalde, EAK puntu hori aprobetxatu zuen gogora ekartzeko Estatuak 37 kompetentziaren transferentzia zor diola Eusko Legebiltzarrari.

Etorkinekin lotutako mozioei dagokienez, berriz, EBk eta PSE-EEk bana aurkeztu zituzten. Ezker Batuaren kasuan, zera eskatu zuten: atzeritarren egoera juridikoaren normalizaziorako beste prozesu bat arau dezan Estatuko gobernuak; modu horretan, atzeritarrek beste aukera bat izango dute erregularizatzeko, EBren ustetan, "aurreko prozesuan ezin izan zutelako, denbora laburra edukitzeagatik eta prozedura kon-



EBk eskatu zuen etorkinen erregularizazio prozesu berria zabal dezaten.

plexuegia izateagatik". Eskaera hori EAJ, EB, Aralar eta EAren aldeko botoekin eta PSE-EEren eta PPren kontrakoekin onartu zuten.

Eta PSE-EEk, etorkinekin lotuta, besteak beste, eskatu zuen mozio baten bitartez etorkinen aldeko udal politika lantzen hasateko Arrasaten. Eskaera onartu egin zuen udalbatzarrak, kasu horretan, PSE-EE, PP eta EBren aldeko botoekin. Gainerakoak abstentitu egin ziren. Eta gogora eka-

rrri zuten Udalean abiarazita ditzutela etorkinen aldeko politikak.

ZILEGITASUNA ZALANTZAN

Osoko bilkura bukatu baino lehen, berriz, galde-erreguen tartea aprobetxatu zuten PSE-EEko eta PPko ordezkariak galdera batzuk egiteko. Hain justu ere, herrian egiten dabilzan zenbait obren zilegitasuna zalantzan jarri zuten alderdi biek, esaterako, kultura etxean egiten dabilzan argizulooa.



LARRAITZ ZEBERIO

Hamar pertsona batu ziren egunean jaien balorazioa egiteko.

Jaien balorazio positiboa egin dute Antzuolan, jende gutxiago ibili arren

Zapatua izan zen egun jendetsuena. Txosna guneko kontzertuek arrakasta izan dute, ez horrela astegunetako dantzaldiek

Larraitz Zeberio

Jaien balorazio positiboa egin zuten egun arratsaldean Antzuolako udaletxean bildutako herritarrek. Banan-banan aipatu ziren jai egitarauko ekintzak eta arrakastatsuen artean txirrindulari lasterketa, txosna guneko kontzertuak, Joselu anaien zein Egan taldearen dantzaldiak, Mairuaren alardea eta Oinarin taldearen dantza saioa nabarmendu ziren.

Kale egin zuten zapatuan Zurrategiko herri-kirolek eta txosna batzordeak antolatutako herri afariak. Cateringa egunez nahastu zen eta 150 pertsonak afaria inprobisatu behar izan zuten zapatuan.

ZUZENDU BEHARREKOAK

Herritar batzuen iritziz ekitaldiak erdigunean kontzentratzen dira eta auzo berrietara zabaldu behar dira. Mairuaren alarde egunean udaletxetik eskegitako paneletan gaztelaniaz eman ziren lehen azalpenak eta kexa azaldu zen batzarrean.

Jende oso gutxi ibili zen astegunetako dantzaldietan zein domekako pilota partiduetan. Egubakoitz goizean umeek zailtasunak izan zituzten jolas parkean jolasteko, eguzkitan zegoelako eta jolasek erre egiten zutelako. Hauek batzarrean aipatutako zenbait akats. Udalak, orain, herritarrengandik proposamenak jasotzeko postontzia jarriko du udaletxean.

• MENDI IRTEERA OÑATIKO NATUR ESKOLAREKIN

ZAPATUAN EGIN ZUTEN 4 ORDUKO MENDI BUELTA GIDATUA

Oñatiko natura eskolak eta turismo bulegoak elkarrekin antolatutako beste mendi irteera bat egin zuten joan zen zapatuan Oñatin. Egundeko irteera izan zen eta Arantzazutik Iturrigorri aldera jo zuten mendigoizaleek, natur eskolako gida lagun zutelak. Bidean, pagadien ezaugarrien berri jasotzeaz gainera, txondor plazak ezagutu zituzten, bai eta ikazkinen bide zaharrak zeharkatu ere.

Abuztuan zehar ere egingo dituzte irteera gehiago; zapatuetan egun erdikoak eta domeketan, berriz, egun osoak.

Horrelako irteerak egiten dituzten hirugarren urtea da, eta orain arte iaz bezalako erantzuna izaten ari dira.



AINZANE IRIZAR

Aretxabaletako kultura etxea ez dute berrituko

Jaurilaritzaren txosten bat tarteko, Udalak proiektua bertan behera laga behar izan du

Astleheneko Goienkaria

Eguenean ezohiko plenoa egin zuten Aretxabaletan, ustez, kultura etxeko lanak egingo dituen enpresa aukeratzeko asmoz. Jaurilaritzaren egindako txosten bat tarteko, bertan behera geratu zen erabakia. Dirudienez, kultura etxea berritzeko ezin da eraikina bota; hala ere, Jaurilaritzaren txostenen jasotzen dena gomendioa baino ez

da eta azken erabakia Euskal Herriko Lurralde-Antolamendurako batzordeak hartu behar du.

BIZIGUNE PROGRAMARI BAI

Bestalde, Aretxabaletako Udalak onartu egin du, aho batez, Bizigune programan sartzea. Orain arte egindako datu bilketaren arabera, Aretxabaletan 54 etxebizitza daude hutsik eta aurrerantzean VISESA enpresak hartuko du beregain herriko etxebizitza hutsak gestioatzeko lana. Udalak, bestalde, etxebizitza hutsak hartzeko kanpaina egingo duela onartu du. Aurten, hutsik dauden 54 etxebizitza horiekin hasiko dira lanean.

ALBINA | ARAMAIOKO URTEGIA AUKERATZEN DUTE ASKOK BAINATZEKO

Bainurako Albinako giroa nahiago, iskanbila eta jendetzatik urrun

Aramaiotik Legutianorako bidean dago Albinako urtegia. Bertako lasaitasuna dela eta aukeratzen dute askok, baina heltzeko nahiko leku zaila da.

Jon Berezibar

Kostaldeko hondartzetako zaratatik urrun eta Landa nahiz Garaioako urtegiako pilaketa barik, badaude, etxetik gertu, bainurako aukera eskaini eta naturaren erdian kokatutako lekuak. Horietako bat Albinako urtegia da, Aramaion. Kurtzetako portuan gora joanda heltzen da bertara, Oleta auzora doan bidegurutzetik aurrera, Marixekako merenderoraino eta handik Legutianorantz joanda. Sarrera ez dago kartelekin iragarrita, baina bide ertzetan utzitako autoek salatzen dute sarbidea.

Arrasatear eta aramaioarrentzako aski ezaguna da parajea, gazteentzako bereziki. Leku lasaia da, oraindik askorik ustiatu gabea, eta horregatik aukeratzen dute askok. Abantaila horien kontrako aldean, berriz, bertara heltzeko zailtasuna eta aparkaleku urritasuna leudeke. Ingurietan, halaber, Marixekako merenderoa dago, parrilla eta itzal nahikoarekin. Iraileko lehen asteburuan ospatzen dituzte jaiak, gainera.

Autostop eginda joaten dira gazte asko eta asko Albinara. Arrasaten hasi eta Aramaion uzten dituzte gidariak gehienetan, eta zortea baldin badago berehala igotzen dituzte urtegiara. Bertan, sarrera aldean egoteko hiru gune daude, baina sarri joaten direnek badakite urtegian aurrera eginda txoko ezkutu gehiago daudela. Leku horiek, baina, koadrila bakoitzak bere tango gorde ohi ditu. Gehienbat Aramaioko eta Arrasateko gazteak joaten dira Albinara, nahiz



AINTZANE AGIRRE

Txoko polita izan arren, oraindik ere gutxi ustiatuko lekua da Albina. Horregatik dute nahiago.

eta autorik ezean, zaila den bertara iristea, autobus bakarra pasatzen da eta bertatik, Aramaiotik Gasteizera doana, eta ez dauka maiztasuna handirik. Gazte asko horretaz dira kexu, baina ia denek lortzen dute urtegiara heltzea.

KIROLA ETA ARRANTZA

Urtegiak, Arabako Aldundiak hala zehaztuta, motordun ontzietan ibiltzeko debekua bakarrik ezartzen du, gainontzeko jarduerak (kirolak, bainua edota arrantza) baimenduta daude Albinan. Muga bakarra beladun ontziek dute. Horregatik ez da horren arraroa bertan piraguak edota txalupa txikitxoak ikustea. Lehen sarreratik hasi eta presaraino oso bide polita dago.

Hala eta guztiz ere, Ur Konfederazioaren sailkapenaren arabera baldintza kaskarrak eskaintzen ditu Albinak, bai bainurako zein arraunerako.

Jarduera horietaz guztietaz gain, karramarro amerikarren-

gatik da ezaguna urtegia. Arrantzarako baimenak martxoaren 19an hasi eta irailaren 30ean amaituko da. Karramarroez gain, amuarrainak, barboak, ezkaluak edota lutxoak arrantza daitetze, betiere dagokion lizen-

tziarekin. Sarri bainugileen eta arrantzaleen artean ika-mikak pizten dira, lehenen zaratak bigarrenen harrapaketak uxatzen dituztelako, baina normalean jarduera bakoitzak bere tokia aurkitzen du.

• ZERGATIK AUKERATZEN DUZUE ALBINAKO URTEGIA?



AINHOA, OLAIA ETA MIRIAN | ARAMAIO



NAGORE | ARRASATE



JESUS ETA CARLOS | GASTEIZ

Adin txikiko gazte gehienak autostop egiten igotzen dira urtegiara. Arrasaten bertan hasten dira asko, gainera.

Bainuaz gain, karramarroak eta antzerakoak arrantzatera joaten dira asko Aramaioko urtegiara

“Kanpotik jende asko etortzen da”, azaldu ziguten hiru neskek, baina kritikaxoa ere egin ziguten: “Guztiek ez dute uzten ingurua aurkitu bezala, gutxi ardura die zikin lagatzeak. Akanpadan, adibidez, jende asko etortzen da, eta txerriotoki baten moduan uzten dute guztia”.

“Ia egunero etortzen gara autostop eginez. Normalean gazteek hartzen gaituzte, zaharrek sekula ere ez. Ondo egongo litzateke autobus gehiago”.

“Karramarroak harrapatzerari ohi gara, egun pasa. Bainulariek uzten badigute, gaurkoa bezalako egunetan bion artean ia ehun bildu ditugu, hori da kupoa. Lasai egon eta naturarekin gozatzeko aukeratzen dugu Albina”.

Ospakizunak hainbat auzotan

Gaur, Santiago eguna, zenbait ekitaldi egingo dira hainbat lekutan. Asteburuak, ordea, eman du zer ikusia gure auzoetan



LARRAITZ ZEBERIO

ARRASATEKO MAALAKO ERRABALA. 50 bat umek hartu zuen parte barikuan haur jokoetan. Zaku karreran, itsulapikoak apurzen eta urez betetako ontzietan txanponak biltzen aritu ziren. Afaria ere egin zuten. Domekan, meza eta luntxa egin ziren.



AINTZANE AGIRRE

OÑATIKO MADALENA AUZOA. Atzo, domeka, eman zieten amaiera hiru eguneko jaiak. Meza, luntxa, trikitilariak, harri-jasotzaileak eta bertsolariak izan zituzten. Auzotarrek, bestalde, Pardiok base-rik Felix eta Andres omendu zituzten.



AINTZANE AGIRRE

BERGARAKO BASALGO AUZOA. Gaur, astelehena, egun handia da Basalgo auzoan. Asteburuan, ordea, mus txapelketa eta bertso afaria egin dituzte. 42 lagun elkartu ziren zapatuan Santiago elizpean afaltzeko. Mañukorta eta Zeberio aritu ziren bertsoetan.



AINTZANE AGIRRE

ESKORIATZAKO MARIN AUZOA. Domeka eguerdian bildu ziren Marin auzoko bizilagunak auzoko jaiak ospatzeko. Egun bakarreko ospakizunak egiten dituzte Leintz Gatzagako bidean dagoen auzo honetan. Meza eta luntxa egin zituzten auzotarrak.

150.000 urteko aztarnak aurkitu dituzte Lezetxikin

Egubakoitzean amaitu zituzten Lezetxikin indusketak. Aztarnategiko mailarik zaharrenean aritu dira.

Asteleheneko Goienkaria

Lezetxikin indusketak egiten aritu den lan taldeak lan bikoitza izan du aurtengo; kontua da ohiko lekuan aritzeaz batera, Lezetxiki II izeneko kobazulo txikian ere aritu direla. Joan zen egubakoitzean amaitu zituzten indusketak eta hori dela eta, Alvaro Arrizabalaga arkeologo eta indusketen arduradunak prentsaurrekoa egin zuen hedabideen aurrean aurtengo indusketetan aurkitutakoaren gainean balorazioa egiteko. "Aberastasun handiko aurkikuntzak egin ditugu" baieztatu zuen Arrizabalagak eta "etorkizunean ere aztarna gehiago eta garrantzitsuagoak aurkituko ditugulakoan nago" adierazi zuen.

AZTARNARIK ZAHARRENAK Hamargarren indusketak izan dira aurtengoak Lezetxikin eta orain arteko mailarik baxuenean aritu dira lanean. Lezetxiki II kobazuloan 150.000 urte inguruko aztarnak agertu dira, orain arteko zaharreneak. Harrizko tres-



AMAGOIA LASAGABASTER

Egubakoitzean egin zuten aurtengo azkeneko indusketa saioa.

nak, hezurrezko tresnak eta animalien hezurak topatu dituzte, besteak beste. "Aurkikuntza berriak Erdi-Paleolitiko eta Behe-Paleolitiko artekoak dira". Sasoi horretako Euskal Herriaz eza gutza gutxi egon da orain arte, baina horretan sakontzeko bidea emango diete zientzialariei egindako aurkikuntzek. Hain zaha-

rrak direla baieztatuko balitz, Jose Maria Barandiaranek aurkitu zuen giza hezurra ere sasoi horretako izango litzateke eta hortaz 1967an agertutako giza hezur hura Atapuercan agertu ziren gorpuzkinen sasoi berekoa izanik han eta Arrasaten bizi ziren gizakien arteko lotura agerian geratuko litzateke.

Eguenean inauguratuko dute ofizialki anbulatorioa

Apirilerako aurreikusita zegoen arren, asteon irekiko dute Arrasateko anbulatorioa

A.G.

Eguenean, hilak 28, inauguratuko dute Arrasateko anbulatorioa. Lanak ofizialki amaitutzat emango dira hortaz, egunean. Azaroan aurreratu genizuen, apirilerako zuten berritzeko lanak amaitzeko asmoa. Azkenean, baina, asteon geratuko da ofizialki inauguratuta Arrasateko anbulatorioa.

ESPEZIALITATE GUZTIAK Berritze lanei esker, Debagoieneko ospitaleak hartzen zituen



AINTZANE AGIRRE

Goizeko 11etan izango da inaugurazio ekitaldia Arrasateko anbulatorioan.

espezialitateak aurrerantzean anbulatorioan egongo dira, dermatologia izan ezik.

Goizeko 11etan, anbulatorioko beharginekin batera, osasun sailburu Gabriel Inclan, Gipuz-

koako osasun saileko zuzendari Manuel Errezola, Gipuzkoako mendebaldeko gerente Iñaki Arratibel eta Debagoieneko ospitaleko gerente Jose Luis Angulo izango dira irekiera ekitaldian.

DEGURIXAKO 32. KANPALDIA



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Degurixan dagoen artzainen txabola erabili dute aurten ere kanpaldira joan direnek.

ELBARRIENDA KO KANPALDIA | GAUR JAITSIKO DIRA DEGURIXATIK

Era horretako Gipuzkoako kanpaldi bakarra da

Degurixakoa bezalako kanpaldirik ez da beste inon egiten. Horregatik izaten du urtero hainbesteko arrakasta

Marijo Deogracias

Militarren kanpin-dendak esku-ratu zituzten, oheak dituztelako; komuna ere jartzen dute mendian; txabolari gehitzen dioten karpa ere lortu zuten euria egiten duenerako... Adibide gutxi batzuk dira, baina Degurixako kanpaldiak prestaketa lan handiak behar izaten ditu; hori dela eta, apirila-maiatza aldera hasten dira prestatzen, bi zapatutik behin egiten dituzten batzarretan. 70-80 lagun elkartzen dira Degurixan, afektatu eta begirale artean; erdi eta erdi. Afektatuak elbarritasun maila desber-

dinak izaten dituzte, batzuek gutxitasun fisikoa dute, beste batzuek psikikoa. Hala ere, guztientzako esperientzia aparta da etxetik kanpo hiru egun egitea eta gainera mendian. Izan ere, hori du Degurixako kanpaldien berezitasunik handiena: mendira eramaten dituztela hiru egunetarako.

URBIATIK DEGURIXARA

Orain dela 32 urte hasi ziren gaur egungo begiraleetariko askoren guraso eta lagunak kanpaldia egiten. Lehenengo bi urteetan Urbian egin zuten, baina Degurixa, hango txabolari esker,

egokia ikusi zuten eta han egin dute kanpaldia azkeneko 30 urteetan. Begiraleek adierazi digutenez, baliteke aurtengoa azkena izatea. Hala ere, ez dago bate-ze garbi zer gertatuko den.

GIPUZKOAKO BAKARRA

Ibarreko herrietako jendeaz gainera, Donostia, Zumaia, Eibar, Legazpi, Zumarraga, Urretxu, Lasarte eta Hernanitik joaten dira kanpaldira.

Lurralde osoan egiten den horrelako esperientzia bakarra da. "Geroz eta ekintza gehiago antolatzen dira elbarriendako, baina era honetako bestelakorik ez dago. Horregatik izaten du hainbesteko arrakasta", diote harro antolatzaileek.

Afektatu gehienak helduak dira. Beteranoena Budi zumaia-rra da; lehenengo bi kanpaldietan ez, beste guztietan izan da. Aurten ere ez du kale egin.

LEIRE PAGALDAI | ATECE-KO BEGIRALEA

"Egoera normalago baten gaudela dirudi mendian"

Umea zela izan zen lehenengoz Degurixako kanpaldian. Harrezkero urtero errepikatu du esperientzia. Bizi beharrekoa dela aitortu digu, datorren urtean gertatuko denaren gaineko kezka ezkutatu ezinik.

Zergatik jarraitzen duzu Degurixako kanpaldira joaten?

Esperientzia oso positiboa delako; erabat gomendagarria. Mendian giteak egoera normalago batean ikusarazten gaitu guztiok, elbarriak eta ez elbarriak gertuago egoten gara; han, gehiago edo gutxiago, baina guztiok izaten ditugu zailtasunak. Gainera, dudaz ohartzeko balio izaten dit; autoestimu plusa da niretako.

Zer antolatu duzue asteburuan?

Ez dugu alde zuzeneko ekipatzaileekin, azkeneko eguneko meza eta Oñatiko bandaren emanaldiaz gain. Oste-rantzean, unean unekoa egiten dugu: taichi egin gura badugu dakienak irakasten digu; dantza egin nahi badugu, musika igotzen da; mendi buelta egin nahi badugu, lur orotarikoak



M.D.

hartu eta joaten gara... Azken batean mendiak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzen ditugu, askatasunean eta zurruntasun barik.

Datorren urtean kanpaldia egiteko arazoak izango ei dituzue.

Ez dakigu zehazki zer gertatuko den. Kontua da parke natural izendapena emango diotela Degurixa hartzen duen parajea eta, gainera, guk erabiltzen dugun artzainen txabola erabiltzeko aukera izango dugun ere dudaz dago. Hortaz, baliteke aurtengoa Degurixako azkeneko kanpaldia izatea, 32 urte eta gero.

Zenbakiak

32

Aurtengoa kanpaldia egiten den 32. aldia da. Lehenengo bi urteetan Urbian egin zuten, baina harrezkero Degurixako landan elkartu izan dira.

70

Degurixan 70-80 lagun elkartu dira kanpaldian asteburuan; domekan 100etik gora lagun egon ziren bazkarian.

3

Hiru egun eta bi gau pasatu dituzte Degurixan kanpaldian. Kanpin-denda militarrek jarri dituzte afektatuendako, litera eta guzti; begiraleek denda txikiagoetan egin dute lo.

30

Horixe da afektatu bakoitzak ordaindu behar izaten duena kanpaldira joateagatik: 30 euro. Hiru egunetako jana sartzen da hor.

DEGURIXAKO 32. KANPALDIA



Militarren kanpin-denda bi erabiltzen dituzte elbarriendako.



Zuzeneko musika emanaldia izan zuten domekan Degurixan.



Karta jokorako astia ere hartu zuten asteburuan.



Eguraldi aparta izan dute kanpaldikoek asteburuan.

• ZERGATIK JOATEN ZARA DEGURIXAKO KANPALDIRA?



UNAI | ARRASATE

“Inoiz egon ez denari animatzeko esango nioke”

Degurixara urte askotan joan izan da Unai, “oso ondo pasatzen dugu han. Azkeneko egunean banda eta bigantxak egoten dira. Inoiz egon ez denari animatzeko esango nioke; probatzeko behintzat”.



IKER | ARETXABAETA

“Parranda ederra egiten dugu han goian”

“Gustatu egiten zaidalako urtero joaten naiz Degurixara. Parranda ederra egiten dugu han goian eta domekan gainera bigantxak egoten dira”, esan zigun Ikerrek. Zapi gorria motxilan hartu zuela ere esan zigun.



BUDY | ZUMAIA

“Egun hauetan denok gara berdintsuak”

“Elbarriendako oso aukera gutxi daude mendira igotzeko eta egun hauetan benetan gozatzen da. Errespetua da gure artean dagoen gauzarik politena, eta egun hauetan denok gara berdintsuak”.



ANDER ETA ANDONI | EIBAR ETA ARRASATE

“Etxean ez egotea asko da guretzako; giroz aldatzea bikaina da”

Andonirentzat “etxean ez egotea asko da guretzako; amari begira egon barik hiru egun” eta Anderrentzat “etxetik ateratzeak dakarrena, giroz aldatzea, bikaina da”, azaldu digu. Hau izaten ei da egiten dituzten “irteretatik onena”, aitortu digute biek, motxilak autoan noiz sartuko zain zeudela.

Koreatik etorri da orain dela gutxi Esteban. Reala jokatzeko ikusten izan da, baina ez hori bakarrik. Astore etxeak Koreako enpresa batekin lizentzia akordioa sinatu

zuelako izan da han. Astore markako jantziak egiten dituzte enpresa horretan eta, gainera, inbertsio handiak egin ditu Realak jokatu duen Peace Cup txapelketan.

Japonian eta Taiwanen ere saltzen dituzte jantziak; Ternua jantziak, hain justu. Laster Txinan ere hastea nahiko lukete arrasatearrek. Hango azokara joando dira.

ESTEBAN URIBESALGO | IMPORT ARRASATEKO ENPRESAKO GERENTEA

"Korearrek janzkera eta gorpuzkera ere beste era batekoak dituzte"

Marijo Deogracias

Korean ari zaretela jakin dugu. Zein da zuen asmoa han?

Orain dela hiru urte hartu genuen internazionalizatzeko erabakia eta harrezkero hainbat azokatan izan gara. Horri esker, Korean merkatu aukera ikusi genuen eta iazko Gabonetatik, lizentzia akordio bati esker, Astore jantziak egiten dituzte Korean korearrentzako. Ez da gauza erraza izan, baina biderik egokiena aukeratu dugulakoan gaudete. Izan ere, euroa dolarra baino garestiago egoteak ez digu onik egiten Asian gure produktuak saltzeko; bestetik, korearrak diseinu kontuetan desberdinak dira eta gorpuzkera ere beste erabatekoa dute. Hortaz, erabaki onena izan da, eurek eurentzat egin ditzatela jantziak, baina gure marka eta kalitatea zainduz. **Lee Chun Soo jokalaria fitxaketak, kirol ikuspegitik ez zuen ekarpenik izan, baina horri esker ireki duzue Asiako merkatua?**

Ez dugu ukatuko Lee Korean izen handiko kirolaria dela eta mesede ere egin digula. Baina Numantziara joana zen guk Koreako lizentzia sinatu genuenerako. Merkatuak zabaltzen hastea erabakia hartu genuen orain hiru urte. Plan estrategikoan ez genuen espreski Asia aukeratu, baina hango eskariengatik aukeratu genuen. Astorek Espainiako ligan presentzia handia dauka eta liga hori munduko garrantzitsuenen artean egonda marka interesgarritzat hartu gintuzten Korean. Datorren urtean, Txinako nazioarteko azokara joan-

go gara; München egiten denaren parekoa da Asian eta ezagutzera emateko aukera bikaina. Merkatu zaila dela badakigu, baina egiten duguna ondo egiten dugula erakusten badiegu aukerak baditugula uste dugu. Hemen zain geratuz gero, jan egingo gaituzte. Dena dela, Groenlandia eta Norwegian ere saltzen ditugu Ternua jantziak, eta baita Italia, Portugal eta Frantzia ere.

Orain arte Realeko hauteskundeetan gero irabazi izan duenaren alde bozkatu izan du Astorek. Azkenekoetan, akzioak banatzea adostu zenuten. Zergatik?

Astiazaranez irabazi zituenak izan ziren lehenengo hauteskundeak. Orduan bere alde egitea erabaki genuen, aukerarik onena zela pentsatu genuelako. Oraingoa egoera desberdina izan da. Krispazio handia egon da; duda handiak zabaldu dira gestioa dela, zuzendaritzaren zintotasuna dela... Astore ere joko horretan sartu nahi izan dute batzuek. Kandidatura bakarra egongo zela uste genuen, baina bi egon zirenez, zatiketa horietan ez sartzeagatik kandidatura bien alde egitea erabaki genuen. Garrantzitsuena, gure ustez, zuzendaritzari laguntzea da; denok egin beharko genukeena.

"Lee Numantzia taldera joana zen Astoreko jantziak Korean egiten hasi zirenerako"



Realak entrenamendurako eta aukirako jantziak aldatu berri dituela esan zigun Esteban Uribesalgotik.

Zer gertatu zaio talde txuri-urdinari azkeneko boladan?

Futbola ez da beste enpresen modukoa: liga irabaztekoan egon ziren taldea eta zuzendaritza bera bigarrenera jaistekoan egon ziren hurrengo urtean.

"Astore eta Ternua marken artean 900.000 jantzi egiten ditugu urtero"

Emaitzek garrantzi demasa hartzen dute epe motzean. Aukera gutxi ematen dira futbolekoan, berehala emaitzak nahi izaten dira eta hori ezinezkoa da. Kovasevik eta Kodro ez ziren Realeko jokalaririk onenak izan taldean aritu ziren lehenengo urtean.

Bartzelonaren ekipamenduak kritikak sortu ditu; Athleticen UEFA-rako elastikoak ere bai. Ze punturaino duzue, diseinuan ari zaretela, ausartak izateko aukera?

Egia da bigarren ekipamenduan aukera gehiago dagoela, baina taldearen irudia zaintzea ezinbestekoa da. Hala ere, guk

patroi eta oihaletan lan handia egiten dugu, nahiz eta jendearen begietarako aldaketa nabarmenik ez igarri.

Zenbat jantzi saltzen ditu Import Arrasateko urtean?

Astore eta Ternua marken artean 900.000 jantzi egiten ditugu urtero. Produktzio zati handiena Arrasaten egiten badugu ere, orain dela 10 urtetik Portugalen kolaboratzailea daukagu. **Asteon autopista iritsiko da Arrasatera.**

Agian, horri esker bezeroek Arrasateraino etortzeko erreparatu gutxiago izango dituzte.

Albiste izango da

ARAMAIO | EGUAZTENEAN EGINGO DUTE

Uda aurreko azkeneko osoko bilkura egingo du udal taldeak

Eguaztenean, arratsaldeko 6etan, egingo du Aramaioko Udalak uda aurreko azkeneko osoko bilkura. Gai zerrendan hainbat gai jaso dituzte aztertu eta erabakitzeko. Horien artean, esaterako, haurreskolaren proiektua dago. Hala ere, badira bestelako gaiak ere. Musika ikasketekin eta eskolarako garraio zerbitzuarekin lotutako dirulaguntzen banaketa adostuko du udalbatzarrak eta herriko hainbat kultura elkartek egindako eskariei erantzungo die. Azkenik, Durako Gain mendiko basoaren aprobetxamendua egiteko lehiaketa zabaltea erabakiko dute.

ELGETA | EGUAZTENERA BITARTEAN

Autobus zerbitzu berezirako izena emateko epea zabalik dago

Ikasturtean zehar Bergarako Elementaleria, Institutura eta Mariaren Lagundia ikastetxeetara jaisteko autobuserako izena emateko epea eguaztenera bitartean egongo da zabalik. Hurrengo ikasturtean goizeko 07:40ean jaisten den eta 14:40ean igotzen den autobusa erabiliko dutenak zenbat izango diren jakin nahi du Udalak.

Aurtengo ikasturtean, batez beste, 10 lagunek erabili izan du autobus zerbitzu berezi hori. Ikasturte berrirako, berriz, 14 bat ikaslek izena ematea espero dute.

Bestalde, zapatuan hasi ziren Elgetatik Aixolara doan bidea garbitzen. Elgetako Udalak jarri ditu beharrezko makinak, baina garbiketa auzolanean egin da.

ARRASATE | IRAILAREN 5ETIK 7RA IZANGO DIRA

Mondragon Ikerketa Kudeaketan enpresaren Udako ikastaroa

EHUk egiten dituen Udako Ikastaroen barruan Mondragon Ikerketa Kudeaketan (MIK) enpresak ere parte hartuko du eta irailaren 5etik 7ra bitartean udako ikastaroa egingo du, *Lanaren etorkizuna* izeneko izenburuarekin.

Horrekin lotuta saiakera lehiaketa ere antolatu dute, gai horren gainean. Saiakera gaztelaniaz zein euskaraz idatzi daiteke. Lehiaketaren helburua lanaren etorkizuna fenomeno sozializatzea litzateke eta bide batez, gizartean fenomeno horren berri zabaltzea eta sormena bultzatzea. Lehiaketako parte-hartzaileek honako galderari erantzun beharko diote: Nolakoa izango da etorkizuneko lana?

Informazio gehiago: www.elfuturodeltrabajo.org

BERGARA | EGUAZTENEAN JASOKO DU

Geyser Gastech enpresak kalitatearen zilarrezko Q-a jasoko du

Eguaztenean, hilak 27, jasoko dute Bergarako Geyser Gastech enpresako arduradunek kalitatearen goi mailako ziurtagiria: zilarrezko Q-a. Eusko Jaurlearitzaren industri sailburuorde Iñaki Telletxeak eta Euskalit fundazioko presidente Xabier Alkorta eman go die saria bergararrei. Ekitaldia goizeko 11etan izango da Bergarako enpresan bertan. Ondoren, Fagor Altzariak enpresara abiatuko dira Telletxea eta Alkorta. Izan ere, enpresa horri ere onartu egin diote kalitatearen ziurtagiria eta horren erakusle eman go die enpresaburuei zilarrezko Q saria.

DEBAGOIENA | UZTAILAREN 31 BITARTEAN

AHTren aurkako kanpaldia egiten ari dira egubakoitza ezker

Alegi aukeratu du AHT Geratu Elkarlanak abiadura handiko trenaren kontrako kanpaldia egiteko. Hantxe dira egubakoitzetik eta uztailaren 31 bitartean hainbat ekitaldi antolatu dituzte, Langaurreko zelaian.

“AHT bezalako azpiegitura erraldoiek inposatzen duten politika desarrollista eta ekonomiaren globalizazioaren aurrean sortutako dinamika soziala eta borrokak ezagutzera ematea” nahi dute kanpaldiaren antolatzaileek eta hortaz “AHTren lanak inoiz hasi ez daitezkeen hiletarako mobilizazioak prestatuko” dituzte kanpaldian.

Hitzorduak



SANTIAGO EGUNA OSPATUKO DUTE GAUR IBARREKO HIRU HERRITAN | Aretxabaletan, Bergaran eta Elgetan dihardute jai horiek ospatzen

Santiagoren omenezko jaiak dituzte Aretxabaletako Korueta elizatean, Bergarako Basalgo auzoan eta Elgetako Goimendi auzoan. Gaur, astelehena, Santiago Eguna, egingo dituzte ospakizun nagusiak. Hala, Goimendi auzoan, 11:00etako mezarrekin hasiko dute eguna; herri kirolak, dantza, ber-

tsolariak, bola joko txapelketa eta erromeria izango dituzte, beste batzuen artean. Basalgo auzoan, Bergaran, meza, kirol probak, dantza txapelketa eta erromeria izango dituzte, eta bihar, martitzena, luntxa eta umeendako jolasak. Koruetan, eguerdiko meza eta luntxa izango dira gaur.

ANTZUOLA |

• Anelkarren zozketako zerbaki sarituak

Honako zerbakiak saritu dituzte: 1.642 (2.323, ordezkoa) eta 1.530 (2.622, ordezkoa). Lehenengoak nekazal turismo baten asteburuko egonaldia izango du; bigarrenak, bidezko merkataritzako otzara.

ARAMAIO |

• Oporrak direla eta, odol emileen laguntza behar dute Arabako Odol Bankukoek dei egiten diete herritarrei odola emateko. Istripu gehiago izaten da sasoi horretan eta odol beharra handia da. Abuztuaren 3an izango dira odol-ateratzeak egiten anbulatorioan, 16:30-20:30 orduetegan.

ARRASATE |

• Maala kaleko jaieguna da gaur, astelehena Madalena jaiak ospatuko dituzte gaur, astelehena.

• Santa Anaren omenezko jaiak Ferrerías kalean

Ferrerías kaleko jaieguna da bihar, martitzena. Txistularien kalejira, umeendako jolasak eta txokolatada izango dira goizean; 19:00etan, hildako auzotarren aldeko meza, eta gauean, auzotarrendako afaria eta musika. Afarirako txartelak Tamayo paper-dendan saltzzen ari dira.

• Kubatar festa Lagunilla tabernan izango da aurtun

Gaztetxeak antolatu ohi duen kubatar festa Lagunilla tabernara ekarriko dute. Bihar, martitzena, izango da, 18:00etan. Karaokea, linbo dantza, kroketak lehiaketa eta mojito bilketa olinpikoa egingo dituzte.

BERGARA |

• Bedelkarren zozketako zerbaki saridunak

Zerbaki hauek dira saridunak: 44.631 (500 euroko erosketa-bonoa); 73.473 (300 eurokoa); eta 24.462 (200 eurokoa).

• Nekazal ordainketa bakarrazalduko dute

Nekazal ordainketa bakararren gaineko hitzaldia egingo dute bihar, martitzena, kultura etxean, 11:30ean.

DEBAGOIENA |

• Turandot elkarteak afaria egingo du Donostian

Turandot adiskide elkarteak Donostian afaria egingo du uztailaren 30ean, zapatua. Zurriola kafetegian batuko dira 21:30ean, eta Kostalde jate-txean afalduko dute 22:00etan. 25 euro da. Izena emateko, deitu 696 91 35 66 telefonora (Juan).

• Aurrematrikulazio epeak zabalik dirau UNEDen

Begarako UNED unibertsitatean aurrematrikulazioa egiteko aukera dago hilaren 30era

arte. 20 unibertsitate ikasketatik gora daude aukeran. Izena emateko, deitu 943 76 90 33 telefonora edo jo www.uned.es/ca-bergara webgunera.

ELGETA |

• Autobus zerbitzua eten egingo dute abuztuaren

Begarara eta Arrasatera autobusa ez da ibiliko uztailaren 30etik irailaren 1era bitartean.

OÑATI |

• Udal Euskaltegian matrikula egiteko aukera irailaren

Irailaren 1etik 20ra bitartean egongo da zabalik udal euskaltegian matrikula egiteko epea. Kontuan hartu lekuz aldatuko direla: Errekaldetik Bidebarrieta kaleko 18.era pasatuko dira. Telefonoa da 943 54 36 73.

• Musika eskolan izena emateko modua irailaren

Irailaren 1etik 6ra bitartean egongo da musika eskolan izena emateko aukera. Edozein adinetako jendearendako dago zabalik. Joan euren bulegoetara 18:00-20:00 orduetegan.

• Abuztuko kirol jardueretan izena emateko aukera

Izena emateko epea bihar, martitzena, bukatuko da. Tenis, minitenis, waterpolo, badminton, igeriketa, aquagym, piraguismoa eta beste batzuk daude aukeran.

Iritziak



Isilpekoak

943 76 92 71
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Nola dabil Arrasateko parkina?

Arrasateko Laubide parkina dela eta txistua jaso dugu irakurle baten partetik. Antza denez, aste honetan bertan, eguerdian, parkinera sartzeko arazoak izan ditu eta horren gainean kexu da: "Arrasaten aparkaleku bila ibili barik parkinera sartzea erabaki nuen eguaztanean, baina nire harridurarako zain egon behar izan nintzen zegoen kotxe pila ikusita. Kontua, ordea, ez zen sartzeko zain zeudenek auto-ilara sortzen zutela. Arazoa zen parkinetik ateratzen ari ziren autoak sarrerako bideetatik ari zirela kanpora ateratzen. Bi ate baino ez ditu parkinak eta biak irteteko badira, nondik sartu behar dugu autoa aparkatu gura dugunok? Eskerrak sarrerako txartela hartu eta gero altxatzen den hesia ez zela berehala jaitsi; bestela autoa txukun izango nuke".

• Loreak ureztatzean kontuz

Uda partean gomendatzen dute loreak goizean goiz ala iluntzean ureztatzea. Horren haritik, irakurle batek txistua bidali nahi izan digu "inolako erreparorik gabe loreak itozten dituzten botatzen diete ura landare askori, batez ere, balkoiak edertzen izaten dituzten hosto askotako lorontziei. Baina txarrean ez da hori; azken batean egiten ari den beroekin landareek ere eskertuko dute eta ur freskoa. Kontua da, balkoi azpi horretatik pasatzea tokatzen zaionak kontu handia izan behar duela, ur-jauziak harrapa ez dezan. Hori gertatu zaidan lekua aipatze- ra ez noa, esanez gero berehala jakingo delako nor den lorazalea, baina deia egin nahi nieke zulo handiko ureztailuarekin aritzen direnei, kontu gehiagorekin eman diezaietela edaten euren landareei. Eskerrak asko".

Sarean harrapatuta

Txirrindularitza-zaleen jarrera okertu egin da?

Agerian geratzen ari da txirrindularitza-zale askoren portaera *gaiztoa*. Tourrean, esaterako, geroz eta gehiago dira zaleek txirrindulariei esaten dizkieten irainak eta jartzen dizkieten oztipoak. Futbol zelaieta-

ko giroa errepideetan ere ikusiko da? Hori da *Goiena.net*-eko eztabaida gunean egin duten galdera. Tourreko Pirinioetako etapak jokatu eta gero zaleen jokaera horren inguruan eztabaidatu zuten blogetan ere.

EZIN DA MOZKORTZERA JOAN PIRINIOETARA

Benetan penagarria iruditzen zait Pirinioetara sesioa sortzera joaten direnen jokaera. Horiak ez dira ez euskaldunak ezta txirrindulari zaleak ere. Hau ez da futbola, eta eskerrak! Pirinioetan txirrindularitza ideiarik ez duenaren dako ez dago lekurik, sesio bila baldin badoa behintzat ez. Lagun batek baino gehiagok entzun zidan Saint Laryn eta ez naiz isilduko.

Gastea naiz baina urte asko daramatzat Pirinioetara joaten eta lehen denak animatzen genituen, horregatik gara munduko zalerik onenak. Baina munduko zaleri onenak arriskuan daude lau pailazorengatik. Utzi egin behar diegu? Nik ez.

Gora txirrindularitza! Eta Pirinioetara mozkortzera bakarrik doana gelditu dadila tabernan!

Bat / www.goiena.net

ERRESPECTURIK GABEA GERA DADILA ETXEAN

Nik uste dut lau pailazo horiei ez diegula utzi behar beste denok animatzen duguna eurek bakarrik izorratzen! San Fermin jaietan zezenen aurrean txarto ibiltzen denari esaten diogun moduan, guk ere berbera bat animatzea ez den beste zerbaite-

tan ikusten dugunean esan egin behar diogu. Errespetatzen ez badu joan dadila etxera! Hala eta guztiz ere uste dut munduko zalerik onenak garela eta aurten gure txirrindulariak txarto ibili diren arren, datorren urtean berriro egongo gara Pirinioetan dena ematen!

Atxabaltar / www.goiena.net

APARTEKO ZALEAK DITU TXIRRINDULARITZAK

Nik ere uste dut txirrindularitzak aparteko zaleak dituela. Ni urte-

ro joaten naiz Tourrera eta izu-garrizko giroa egoten da. Euskalteko zaleak sutsuak gara eta gainera zaletasun hori kutsatu egiten diegu besteei. Tourreko giroa ez litzateke berdina izango euskaldunak ez bagina joango. Hori aldatzen bada, txirrindularitzak eta txirrindulariek asko galduko lukete.

Zalea / www.goiena.net

TXIRRINDULARI GUZTIAK ANIMATZEN DITUGU

Estatuan eta batez ere atzerrian munduko zalerik onenak garela esaten dutenean ez da sortzen ditugun istiluengatik, edo zaratarengatik, edo botatzen dugun parrandarengatik, edota gure aldarrikapengatik. Munduko zalerik onenak gara euskaldunok txirrindulari guzti guztiak animatzen ditugulako, eta, batez ere, euskaldunak ez diren beste guztiak ere errespetatzen ditugulako.

Hori betetzen al da azken aldian? Nire erantzuna: ez. Eta zoritxarrez zale flandiarrengandik asko ikasi behar dugula uste dut. Azken aldian pailazo itxurako asko apuntatzen ari da parrandara bakarrik, hainbeste urtetan zehar euskaldunok Pirinioetako etapetan utzi dugun irudi ezin hobea zapuztuz.

Euskaldun / www.goiena.net

www.goiena.net

Txirrindularitza-zaleen
jokaera okertzen ari
dela uste duzu?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo
www.goiena.net webgunera

Halaxe erantzun digute

Araba, Bizkaia
eta Gipuzkoako
kutzak
bateratzeak zer
ekarriko
duela
uste duzu



EGOITZ ITURBE |
ELA SINDIKATUA

Helburuak interes merkantilistak soilik ez diren heinean eta langileen interesak partikulari eta gizartearen orokorrean kontutan hartzen badituzte, gure herrian kutxa bakarra izatea ona litzateke. Balorazio serioa egiteko beharrezkotzat jotzen dugu beraien helburuak ezagutzea.



MIKEL IRIZAR |
KUTXAKO BEHARGINA

Kutxetako arduradunen arrazoiak: tamaina, lehiakortasuna, efizientzia... Politika mailan aipatzen direnak: agente kontzentrazioa, kromo trukea, jeltzale eta sozialisten arteko lehen zirriak... Nik bat-egitea behar dut Kutxako lana uzteko. Horrelakoetan aukerak izaten dira eta.



RAFAEL KORTABARRIA |
BURTSAN ADITUA

Positiboki baloratzen dut bateratzea. Azken batean handiagok ere badatoz eta haiei aurre egiteko zatitua egotea baino efektiboagoa da batuta egotea. Politikan moduan, ekonomian ere, asko esaten du nork agintzen duen eta kasu honetan ere zenbat eta handiagoa, indartsuagoa.



ANTXON PEREZ DE CALLEJA |
EKONOMILARIA

Ekonomikoa baino erabaki politikoa da. Kutxa bakoitzak gehiago irabaziko luke Euskal Herri- tik kanpoko kutxak xurgatuz edo posizio hobekoak lortuz presentzia txikia duten merkatuetan. Hiru kutxen bateratzeak ez du produktibitatea areagotuko, ez eta sinergia handirik ekarriko ere.




Egunkarietako harribitxiak

5 MENDEKO HISTORIA ETORKIZUNARI BEGIRA

Arantzazuko monasterioaren bost mendeak aitzaki hartuta hamar orrialdetako erreportajea egin zuen atzo Gararen domeketako aldizkariak. Argazki zahar eta berrien bitartez Arantzazuk izandako eraldaketa erakutsi zuten eta hango hainbat frantziskotarren iritziak jaso zituzten.

'Zazpika'
2005-07-24



JAINKOA!

Ozenago agian, baina argiago ezin daiteke adierazi. Horrela izendatu zuen atzo Berria egunkariak Lance Armstrong txirrindularia. Kiroletako informazioari hasiera ematen dion orrialdean letra larriz idatzi zuten txastarra umeak agurtzen ari dela erakusten zuen argazkia; makurtuta, umeen altuerara, besoa luzatuta umeari burua ukitzen. Jainkoa izan arren, gizon xume eta apalaren alderdia goraiatu nahi izan

zuen kirol kazetariak argazkia aukeratzeko orduan.

Jainkoak agur esan zion atzo Tourrari, bai eta txirrindularitzari ere. Zazpigarrenez Parisera jaun eta jabe iritsi zen atzo amerikarra eta orain arteko toureko txirrindularirik onena dela erakutsi zuen berriz ere.

Bera da Tourreko jainkoa; ezin da jainkoago izan.

'Berria'
2005-07-24



Tira, tira...



Montxo 'Berria' | 2005-VII-24

Egunkarietan irakurri dugu

'El Pais'

MUGARIK GABEKO IZUA

"Ez dirudi Londres eta Sharm el Shejeko gertaerek lotura zuzenik dutenik (...), baina bi atentatuak, New York, Madril eta Bali-koak legez, Mendebaldea zapaltzeko terrorismo islamiar globalaren estrategiari erantzuten diete. AEBk eta EBk gehiago landu beharko dute musulmanak mendebaldeko herrietan integrazteko elkarlana".

Editoriala
2005-07-24

'El Mundo'

POLIZIA BRITAINIARRAREN AKATSA

"Gobernu britainiarrak ezin du laga egingo dako akats tragikoak demokraziaren etsaiei balio diezaieen berau deslegitimatzeko. Hortaz, ondo egingo luke heriotza lehenbailehen argitzen, berriz ere gerta ez dadin. Bide batez, inork imajinatzen du zer gertatuko zatekeen martxoaren 11ren ostean Espainian horrelakorik gertatu izan balitz?"

Editoriala
2005-07-24

'Diario Vasco'

TERRORISMO ITSUA

"Mendebaldeko hiritarrak euren artean oso urruti, baina helburuetan estu lotuta dauden -nazio demokratikoen eta hauekin kolaboratzen dutenen jazarpen eta eraispena- aldi bereko erasoei begira daude harrিতuta. Eta bereizi gabeko hurrengo eraso non eta noiz izango den galdera bista-koa bezain beldurgarria da".

Editoriala
2005-07-24

'Deia'

DINAMIKA ONARTEZINA

"Ez zatekeen desiratutako bake prozesuarekiko zintzoa izango ezker abertzale erradikalenaren erreferente politikoek egoeraren subjektu pasibo legez aritu nahi izatea (...). Ez da onargarria elkarrizketa prozesua enpresarien kontrako ETaren mehatxuak ukatuz edo politikoen egoitzen kontrako erasoekin ordezkatzuz egitea.

Editoriala
2005-07-24

Zorrozailea



Ufala

"Urteko bidairik luzeena eta konplikatuen dator gidari gehienentzako, eta horrekin errepideetako auto-ilarak. Oporretara joateko bidaia desiratuena, arrazoi pozgarria izan beharko litzateke, baina sarritan benetako bidegurutzetara bilakatzen da".

'El Pais' | 2005-07-23

Naturaren elementuak menderagaitzak dira, baina noizean behin urak ubidea gainezkatzen du, ubideari muzin egiten dio. Orduan ufala sortzen da, uholdea. Bizitza bihurkaitzak zedarritutako bidea onartzea nekeza da.

Ufala gertatzen da pertsona askoren bizitzan, natura, temati, basatia dela gogorarazten saiatzen denean. Natura modurik gordinenean agertzen zaigu ume bat jaiotzen denean, gaixotasunean edo gertuko baten heriotzan.

Santiago egun hauetan oporretako ubidean baino ufalean igerian dabilzanek jakingo dute aurrera egiten. Gizakiak mendeetako ufal, sute eta elurtetan erabili duen jakinduria eta elkartasunari esker.

Elena Laka

Bizitza markatutako bidezidoretetik doan bitartean, mundu zibilizatuko langile gehienek, Debagoieneko kalbindarrak barne (Iban Zaldúa dixit), dena lanaren arabera antolatuta daukagu: hamaika hilabete lan, bat jai (eta gaitzerdi horrela denean). Lanak finkatzen dio bizitzari eraman beharreko bidea eta abuztuko etena ubideko hesien barruan geratzen da.

Santiago egunarekin hasten da opor giroa eta oporraldiak guztion ahotan daude, zer egin behar dugun jakiteak ematen duen segurtasunarekin, oporrak izateak sorrarazten duen pozarekin.

Abuztuko oporrak, bizitzaren planifikazioaren ezaugarri, ura behar den bidetik doanaren seinale.

"Lanak finkatzen dio bizitzari eraman beharreko bidea, eta abuztuko etena ubideko hesien barruan geratzen da"

"Noizean behin ufala sortzen da eta oporretako ubidean baino ufalean igerian dabilzanek jakingo dute aurrera egiten"

KIROLA

- Perurena aita-emeek ikuskizun bikaina eman zuten Oñatin | 18
- Lau arrasatear Donostian jokatu den munduko atletismo txapelketan | 18



Mikel Gonzalez
Sanseko jokarari
arrasatearrarekin
jardun dugu
berbetan | 19

REALAREN BIRA 2005




Egubakoitzean aurkeztu zuten Realaren Bira 2005 Arrasateko Udaletxeko Pleno aretoan.

JOKIN ETXEBARRIA

Laubide plaza hurrez beteko da eguaztenean Realaren Birarekin

Hilak 27, goizeko 9:30, Arrasateko Laubide plaza.

Orduan dute debagoieneko hurrez Realaren Birarekin hitzordua. Ordurako plaza bi zelai txikirekin – 3x3 partiduak jokatzeko modukoak –, boleiboleko sareekin –futboleyn jokatzeko prestatua–, eta jolas eta irudiekin beteriko hainbat karparekin beteta egongo da. 14:30ak bitartean egongo da zabalik gerturatu nahi duen guztia- rendako. Litekeena da 3x3ko txapelketa bat antolatzea. Gainera, ekintza guztiak bukatutakoan zozketa erraldoi bat egingo da. Port Aventura-ko bi bidaiak zozketatuko dira, baita Realeko kamisetak eta baloiak ere, eta parte hartzen duten guztiei opari bana emango diete. Horretaz gainera, ez da harritzekoa izango Realeko jokalariren bat han ikustea.



REALA | 15 HERRITAN EGONGO DIRA UZTAILA ETA ABUZTUAN ZEHAR

Reala Gipuzkoara gerturatzea du helburu nagusi Bira 2005ek

Irunen hasi eta Hendaian bukatuko da bira. Arrasaten eguaztenean egongo dira

5-15 urte bitarteko hurrek bost orduz hainbat joko egiteko aukera bikaina izango dute

Jokin Etxebarria

Realeko zuzendaritza berriak betidanik garbi izan du Realak Donostiakoa ez ezik Gipuzkoakoa ere izan behar duela. Talde txuri-urdina Gipuzkoara gerturatzeke hainbat ekintza antolatu nahi dituzte eta horien artean

dago kokatuta Bira 2005. Jesus Mari Zamora Realeko kontseilariak eguaztenean adierazi zenez "Bira 2005 Reala probintziara eta bertako herrietara hurbiltzeko ahalegin berri bat da. Realak Gipuzkoatik gertu egon behar du beti". Ekintza guztiz berria da. Jolas-kirolak izango

dira biraren ardatza. 3x3 txapelketak, futbole partiduak, lehen taldearen irudi historikoekin eta jolasekin osatutako karpak... aurkituko ditugu bertan. Berez, jende guztiari begira antolatu dute, baina 5-15 urte bitarteko artean izaten dute arrakasta gehien ekintza hauek.

Bira Irunen hasi zuten zapatuan, eta abuztuaren 11n amaituko dute Hendaian. Egun hauetan 15 herritatik pasatuko dira. Uztailean hondartzarik ez duten herrietan ibiliko dira, eta abuztuaren zehar, berriz, hondartza dutenetan ibiliko dira.

ARRASATEN EGUAZTENEAN Egubakoitzean gerturatu zen Alfredo Castresana Bira 2005eko arduraduna Arrasatera ekintza ren berri ematera. Ilusioz bete-

rik daudela adierazi zuen Castresanak, proiektu berria izanagatik ondo funtzionatuko duela-ko esperantza dutelako; horregatik, hurrengo urteetan ere egiteko asmoz daude.

3x3 txapelketak, futbole partiduak, jolasak... aurkituko ditugu bertan

Port Aventura bi bidaiak, kamisetak, baloiak... zozketatuko dituzte

Birako arduradunak jakinarazi nahi izan zuen Zubietan urtean zehar antolatu diren beste zenbait ekintzen ildotik doala Bira 2005.

Debagoienean, Arrasaten bakarrik aurkituko dugu bira. Baina, "debagoiendar guztiei zabalik dago hitzordua". Eguaztenean, hilak 27, egongo dira Arrasateko Laubide plazan goizeko 9:30etik 14:30era gutxi gorabehera.

Gainera, parte-hartzaile guztien artean Port Aventura bi bidaiak, kamisetak, baloiak eta beste opari batzuk zozketatuko dituzte txapelketako antolatzailak. Eta litekeena da Realean jokatzeko dabilen jokalariren bat edo beste Laubide plazara gerturatzea Bira 2005 jokatzeko den egunean.

Kirol Elkartek

• BERGARA K.E. BATZAR OROKORRA

2005-2006 denboraldian ez da senior mailako saskibaloitza talderik egongo Bergaran

Adinean gora joanez gero, emaitzak kaskarragoak izan dira elkarteko lau kirolean

Jon Unamuno

Egubakoitzean izan zen batzar orokorra eta lehendakariaren agurraren ostean, kirol eta diru kontuak jorratu ziren.

Iñaki San Joseren lehendakari zapean dagoen elkarteak futbolari, eskubaloitari, saskibaloitari eta pilotari erreposoa eman zien. Ez zen gustuko balorazioa izan, baina txarragoa ere izan zitekeen. Oro har, kirol guztietako nagusiek denboraldi kaskarra egin dute eta elkarteari poztasunak gaztetxoek eman dizkiote. Hurrengo urtera begi-



AINZANE AGIRRE

Bergarako kultura etxean egin zuten kirol elkartekoek 2004-2005 denboraldiko kirol eta ekonomia balorazioa.

ra, futboleko preferente mailara igotzeko erronka izango dute. Ez da erraza izango; izan ere Iñaki San Josek esaten duen moduan

“errazagoa da preferente mailari eustea, preferente mailara igotzea baino”. Saskibaloian okerrago daude senior mailako

mirak, ez da talderik irtengo eta hurrengo denboraldian. Hala ere, bai kadeteetan bai gazte mailan nesken eta mutilen taldeak irte-

teko aukera egon liteke. Pilotan Igor Igartua eta Beñat Rezusta kimu mailan Gipuzkoako txapelkunorde izan dira. Eskubaloian, bigarren nazionalako eta bigarren territorialako taldeek, talde bakarra osatuko dute lehen territorialan hurrengo denboraldian. Nesketako taldeak maila berean jarraituko du.

DIPUTAZIOAREKIN TRATUAN

Orain oporrak etorriko dira, baina hurrengo denboraldira begira, badute zer negoziatu Bergara K.E.-ko kideek. Eskola-kirolaren legea puri-puritan dagoen gaia da eta Bergaran ere jorratu beharreko gaia dela deritzote. Hori dela eta, hurrengo denboraldian Diputazioarekin negoziatzea egongo da eta asmoa hurrengo da: infantil eta kimutan nahi diren taldeak ateratzea eta benjaminetan teknifikaziorako taldea sortzea.

Balantzeak alderdi txarrak gehiago izan ditu onak baino. Hala ere, jokalarien ekimena ikusita, aurrera joko du elkarteak.

Futbola

• ANTZUOLA KIROL ELKARTEKO BATZAR OROKORRA

Aurrekontuak nabarmen egingo du gora datorren denboraldirako

Joan den urteko denboraldia historikotzat jo zuten Antzuolako kirol elkarteko zuzendaritza batzordekoek


Jokin Etxebarria

Eguenean egin zuten Antzuola Kirol Elkarteko batzar orokorra. Bertan, joan den urteko denboraldiaren balantzea egiteaz gain, datorren denboraldirako helburuak ere plazaratu zituzten. Ilusio handiarekin daude zuzendaritza batzordekoak den-

boraldi berriari begira, baina lan eskerga egin beharko dutela ere badakite.

DENBORALDI HISTORIKOA

Batzarra joan den urteko denboraldiaren balantzea eginez hasi zuten. Denboraldi historikotzat jo zuten zuzendaritzakoei iazkoa. Izan ere, urtero ez dira bi titulu irabazten. Gazte mailako txapelketako garaile irten ziren, eta mailaz igo zuten, eta kadeteak berriz, kopako irabazle irten ziren. Kirol denboraldiarekin jarraituz, garrantzi handia eman zioten infantiletan taldea atera ahal izanari, eta 2. Regionalean txapelketa jokatu ahal izanari, denboraldi hasieran ez zekiten eta taldea atera ahal izango zuten.



JOKIN ETXEBARRIA

Pozik agertu ziren Antzuola Kirol Elkarteko zuzendaritzakoei joan den urteko denboraldiarekin.

Balantze ekonomikoari dagokionean, 1.400 euroko defizita izan zuten. Baina nobedadea, aurtengo aurrekontuan dago. Iazkotik 8.000 euro igoko baita, 30.600

eurotan jarri arte. Igoera horren arrazoia da aurtengo bost talde aterako dituztela, eta bidaia kopuru handiagoa eta luzeagoak izango dituztela. Hori bai, hau herria-

ren laguntzarekin lortu behar dela garbi utzi nahi izan zuten zuzendaritza batzordekoek, bestela zaila izango da eta aurrera egitea.

ARAMAIOKO RALLYSPRINTA



AINTZANE AGIRRE

Artetxe zen zapatuan proba irabazteko favoritoa, baina azkenean ezin izan zuen helburua lortu, eta Zapirainek irabazi zuen.

RALLYSPRINTA | JENDE ASKO HURBILDU ZEN ZAPATUAN ARAMAIORA ETA EZ ZEN AIPATZEKO ISTRIPURIK GERTATU

Zapirainek irabazi zuen Aramaion final estu batean

Artetxek eta Zapirainek denbora berdina egin zuten 3 txandetan, baina Zapirainek lehen txanda irabazi zuenez, bera txapeldun

Jasone Zabala

Ikuskizun politaz gozatu ahal izan genuen zapatuan Aramaion. Herriko Azpiko racing taldeak antolatuta laugarren rallysprinta jokatu zen. Emozioa handia izan zen azken momentura arte, eta irabazlea Astigarragako Joseba Zapirain izan zen, bere laguntzaile Jose Manuel Perezekin batera, joan zen urteko emaitza bera lortuz.

Artetxe mañariarrak hobeto ezagutzen zuen 19,8 kilometro zituen ibilbidea, eta bera zen

favorito proba irabazteko; baina azkenean, estu-estu izan bazen ere, eta lehenengo txandan denbora hobea egin zuelako, Zapirainek irabazi zuen.

30 parte-hartzaile inguru aritu ziren, eta proba 24k amaitu zuten, bertako ibilbidean autoek asko sufritu baitzuten. Debagoienarren dagokienez, Haritz Errasti eta Ander Oion aramaiorrek azken momentuan autoan izandako arazo tekniko batzuen ondorioz ez zuten parte hartu. Igor eta Iker Orobengoa, berriz, 3. klasean, 7. izan ziren,

eta sailkapen orokorrean, edo scratchean, 19. lekuan amaitu zuten. Proba amaitu eta gero, pozik azaldu ziren Garagartzako

Espero zena baino azkarrago joan zen proba, 15:30ean hasi eta 18:00etan amaitu zen

Debagoienetik parte-hartzaile bakarrak izan ziren, Orobengoa anaiak hain zuzen

bi anaiak egindako lanarekin.

Giro ezin hobea egon zen, ikusle askorekin, eta eguraldiak ere lagundu zuen. Ibilbideko puntu guztietan egon zen jendea gidariak animatzen. Ibilbideko lurra ez zen oso egokia, harri txiki pila bat zeudelako, eta arazo bat edo beste izan zuten gidariak autoa kontrolatzeko.

ISTRIPU LARRIRIK EZ

Iazko saioarekin alderatuz, aurtien ez zen aipatzeko istripurik izan; hala ere, proba 30 gidariak hasi bazuten ere, 24k amaitu zuten.

Esan behar da proba uste baino ordubete lehenago amaitu zela, eta irabazleek euren sariak arratsaldeko 8etan jaso zituztela herriko plazan. Antolatzaileak pozik agertu ziren zapatuko probarekin.

Sailkapena

LEHENENGO KLASEA

1. I. Gerediaga/I. Gerenab. (13:59:20)
2. R. Lapuente/I. Sanz (14:16:30)
3. J. Soares/X. Altube (14:22:80)

BIGARREN KLASEA

1. O. Helgera/M. Fontecilla (13:17:10)

HIRUGARREN KLASEA

1. T. Uzkuadun/I. Iturriotz (13:09:10)
2. A. Arana/T. Arana (14:10:60)
3. I. Tarsicio/I. Peña (14:11:00)

LAUGARREN KLASEA

1. J. Zapiain/J.M. Perez (12:40:20)
2. S. Artetxe/S. Fernandez (12:40:20)
3. R. Garcia/A. Perez (12:44:70)

GAZTE MAILA

1. I. Gerediaga/I. Gerenab. (13:59:20)
2. D. Bandera/B. Guerrero (14:26:30)
3. I. Galarraga/A. Azkuna (14:35:30)

SCRATCH (SAILKAPEN OROKORRA)

1. J. Zapiain/J.M. Perez (12:40:20)
2. S. Artetxe/S. Fernandez (12:40:20)
3. R. Garcia/A. Perez (12:44:70)

DEBAGOIENDAR ONENAK

19. I. Orobengoa/I. Orobengoa (14:33:10)

ARAMAIOKO RALLYSPRINTA



Gidari guztiak irteeran adi egon ziren epaileen aginduei.



Kronometroa eskutan zutela ere ibili ziren batzuk.



Ibilbideko harritxoak kentzen nahikoa lan izan zuten.



Istripu askorik ez zen izan, eta egon zirenak ez ziren garrantzitsuak izan, baina ikusmina sortu zuten.



Ogitarteko ederrak jan zituzten txandatik txandara, batzuek.

• NOLA JOAN ZAIE GIDARIEI ARAMAIOKO RALLYSPRINTA?



IKER OROBENGOA ETA IGOR OROBENGOA |
ARRASATE

“Lortu dugun postuarekin pozik gaude. Askok disfrutatu dugu, eta datorren astean beharbada Lekunberrira joango gara”

“Probako ibilbidea oso zikina zegoen, eta jaitseira nahiko arriskutsua zen, kontu handiarekin ibili beharrekoa. Zati txikia izan da. Garrantzitsuek, autoa osorik daramagula etxera, edozer gauza apurtuta ere, diru asko kostatzen baita konpontzea. Datorren astean Lekunberrin jokatuko da proba, eta autoari ukitu txiki batzuk eman behar dizkiogu bertara joan aurretik”.



JOSEBA, JOSEBA ZAPIRAIN ETA ANE |
ASTIGARRAGA

“Lortutako emaitzarekin oso pozik nago. Hirugarren txandan zaila ikusi dut garaipena, baina joan den urtean bezala, aurrean ere irabaztea lortu dut”

“Lasterketa oso ondo joan da. Lehenengo zatian autoa abiadura-kaxarekin arazoak izan ditugu. Hirugarren txandan zaila zegoen kontua, baina irabaztea lortu dut. Ibilbidea oso polita da, oso teknikoa; izan dituen 19 kilometroetan harri ugari zeuden lurrian, eta horrek pixka bat zaildu du autoaren kontrola eramatea. Joan zen urtean ere bertan irabazi nuen. Maila handia azaldu dute proban parte hartu duten gidari denek. Autoak ez du asko sufritzen, arazoa da konponketak egiterako orduan gastu handia suposatzen duela”.



S. ARTETXE ETA S. FERNANDEZ |
MAÑARIA ETA VILLASANA MENA (BURGOS)

“Lehenengo zati txarra egin dugu, eta azkenean zerbait berreskuratu dugun arren, ez da nahikoa izan”

“Lehenengo zatian lokartu egin gara, eta zerbait gehiago egiteko aukera izan dugu, baina ez dugu lortu. Bigarren zatian segundo bat behera ateratu dugu, eta hirugarren zatian jaitse egin dugu eta segundo batzuk erreperatu ditugu, baina ez da nahikoa izan. Amaierara berdinduta iritsi gara, baina Zapirainek lehenengo txanda irabazi duenez, bera izan da irabazlea”.

Atletismoa

• BETERANOEN MUNDUKO TXAPELKETA



JON UNAMUNO

Argazkietan Mª Fran Alonso eta Cesar Diez ageri dira. Hilabete barru munduko onenekin batera egongo dira.

Lau arrasatear beteranoen munduko XVI. txapelketan

Mª Jesus Gil, Mª Fran Alonso, Mª Jesus Velasco eta Cesar Diez abuztuan munduko txapelketan izango dira

Jon Unamuno

Abuztuaren 22tik irailaren 3a arte Donostian beteranoen munduko txapelketa jokatu da eta tartean izango dira lau arrasatear. 35 urtetik gorakoendako txapelketa izango da eta gure lau ordezkariak helburu desberdinekin joango dira. Bai Mª Jesus Gilek eta bai Mª Jesus Velascok 1.500 eta 5.000 metrotako probe-

tan lehiatuko dute. Bigarrenaren helburua txapelketaz gozatea da, baina Gilek postu onenari bukatzea nahi izango du. Mª Fran Alonsok 1.500 metroko proban eta 8.000 metro krosekoko proban parte hartuko du. Beroarekin gaizki pasatzen du Alonsok, baina ondo pasatzeko helburua izanda, seguru esperientzia polita biziko duela. Cesar Diezek maratoian parte hartuko du,

bere azkeneko maratoia. 20 maratoietan parte hartu du eta azken hau Kabieta zenaren omezez egingo du.

DOMINA GARESTIA

Mª Jesus Gilen maila inork ez du eztabaidatzen, baina oso zaila izango du domina lortzea. 1.500 metrotan 6:16 marka du eta 5.000 metrotan 22:43. Ea zein postutan amaitzen duen.

• HERRI KIROLAK

IÑAKI PERURENA ETA BERE SEMEA INAXIO MADALENAKO JAIETAN

Ikusmin handia sortu zuten Perurena aita-emeek Madalenetako jaietan. Nahiz eta Oñatin behin baino gehiagotan egon, Madalena auzoan lehenengo aldiz egon ziren Perurenatarak.

Erakustaldi polita eskaini zuten ekarri zituzten sei harriekin: 111 kiloko borobila, 113 kiloko laukia, 125 kiloko kubikoa, 190 kiloko zilindrikoa eta 220 eta 255 kiloko laukizuzenak. Iñaki ez dago sasoirik onenean eta harri pisutsuenak Inaxiok altxatu zituen. Horrela, Iñakik harri kubikoa 12 alditan altxatu zuen 45 segundotan eta semeak 255 kiloko harria altxatu zuen. Bere helburua 280 kiloko harria altxatea da negura bitartean. Eurak ikusita erraza zirudien, baina hori sasoiak erakutsi zutena!



JON UNAMUNO

Txirrindularitza

Gurutz Larrea erlojuz kontrakoan 14. izan zen Estatuko txapelketan

Jon Unamuno

Murtzian izan da Gurutz Larrea antzuolarra aurreko astean Espainiako txapelketan. Eguean erlojuz kontrakoan parte hartu zuen eta zapatuan errepideko lasterketan.

Bikain moldatzen da Gurutz erlojuz kontrakoan eta horixe erakutsi zuen Murtzian. 22 km zituen ibilbideak eta haizea zela eta, oso gogorak egin zitzaizkien txirrindulariei. Gurutzek ondo ikusi zuen bere burua eta lortutako 14. postuarekin pozik gelditu zen.

Zapatuan errepideko lasterketa izan zen. Ibilbideari dagokionez, lau portu igo behar izan zituzten txirrindulariek. Lehenengo igoeran zulatua izan zuen Gurutzek, baina berriro harapatu zuen pelotoia. Hala ere, segituan etorri zen bigarren mendatea eta ezin izan zuen indartsuenekin jarraitu. 51. bukatu zuen.



ARTXIBOA

Murtzian ondo aritu da Gurutz.

HURRENGO URTEAN TKV-RA Denboraldia aurrera doa eta Gurutzen emaitzek ez dute inor indiferente laga. Hurrengo urtean afizionatuetan arituko da eta dagoeneko badaki non egingo duen. Debagoieneko taldera joango da Gurutz: TKV taldera.

Pilota



ASTELEHENKO GOIENKARIA

LAZKANO ETA UBERA SEGOVIAN FINALERA

Asteburu luze honetan bi debagoiendar Ordago enpresarekin Segoviara joan dira jokatzera: Lazkano arrasatearra eta Ubera elgetarra. Segovian lau bikotetatik bigarren gelditu ziren finala 25-15 galdu ondoren. Lazkano baina, Segoviatik Leonera joan zen beste txapelketa batera. Atzo final laurdenak jokatu zituen, eta irabazi. Gaur izango du finalerdia eta finala jokatzeko aukera.

Labur

Tourreko porrek diru mordoan banatu dute Debagoienean

Tourra dela eta porra mordoan egin dira Debagoienean. Parte-hartzaile gehien izan dituen Arrasateko Xantini peñak eta Monte tabernakoek antolatutakoa izan da: 872 parte-hartzaile guztira. Bertan irabazlea Ostantz izan da eta 10.464 euro jasoko ditu. Bergaran ere egin dute Lokatzakoek porra eta irabazlea Antxon Hernandez izan da; 3.590 euro jasoko ditu. Sari banaketak Arrasaten eguean izango dira Monte Tabernan, eta Bergaran martitzenean, Bar Zabalan.

Mikel Gonzalez 20 urteko arrasatearra Koreatik etorri berri da Realarekin bertan jokatzeko ibili eta gero. Gazte honen karrera itzelezko abiadan doa. Joan zen

denboraldian Realaren hirugarren taldean hasi -preferente mailan- eta Sanserekin jokatzeko bukatu zuen. Horretaz gainera, lehen taldearekin ere joan zen deialdiren

batean. Aurten denboraldi-aurrea lehen taldearekin egiten dihardu, Korean egon da, baina Mikelek argi dauka bigarren taldean jokatu duela denboraldian zehar.

MIKEL GONZALEZ | 'SANSE'KO JOKALARI ARRASATEARRA

"Ikasteko oso ondo dator lehen taldearekin jokatu ahal izatea"

Jokin Etxebarria

Korean egon berri zara. Zer moduko esperientzia?

Esperientzia oso polita. Egia esan, denbora larregi ez dugu izan Korea ezagutzeko. Partiduak zirela eta entrenamenduak zirela goiz eta arratsalde bakarra izan genuen libre, eta gehien bat deskantsatzeko erabili genuen.

Hala ere, ikusi dugun apurra oso polita izan da. Beti izaten da interesgarria beste kultura eta herrialdeak ezagutzeko. Niretzat behintzat bai, sekula hemendik irten gabe nongoen eta.

Gainera lehen taldearekin debuta egin ahal izan duzu. Zer moduz ibili zinen?

Gustura. Egia da denboraldi-aurreko lehen partidua izatera, fisikoki topera ez zaudela igartzen duzula, edo zerbaiten faltan zaudela... baina lasai egon nintzen, eta oso positiboa izan zen. Gainera, taldekideek asko lagundu zidaten lasaitzen eta gauzak dakidan moduan egiten.

Denboraldi-aurrea, gutxienez, lehen taldearekin egitea polita, ez?

Bai. Ikaragarria da. Gainera oso ondo datorkit jakiteko goian nola funtzionatzen duten gauzek. Sansen ari naiz jokatzeko, eta ikasteko oso ondo dator goiko taldearekin ibiltzea.

Gainera kontuan hartuta joan den denboraldia EHU taldearekin hasi zenuela.

Bai, egia esan zorte pixka bat ere izan dut. Batak min hartu duela eta bestea ez dabilela ondo, denbora gutxian postu asko igo ditut. Gero, aukerak aprobetxatzen jakin izan dut, eta bai, arraroa badirudi ere, urte batean maila pila bat igo ditut. Preferente mailan hasi nintzen EHUrekin, Sansen jokatzeko bukatu nuen, eta lehen taldearekin entrenatzen dut. Oso azkar pasatu da dena.

Agian azkarregi?

Egia esan orain oso ondo nago. Maila bakoitzera moldatu

beharra dagoela garbi dago, eta horrek bere denbora eskatzen du, baina oso gustura nabil.

Zer iruditzen zaizu Amorrortu entrenatzaile moduan?

Entrenatzaile ona da. Isila, baina esan beharrekoak esaten dituena, eta modu zuzenean gainera. Ez da errieta asko egitekoa, eta jokalaritari berak dakiena egiten uzten dionetakoa da.

Hala ere, bigarren taldean jokatu duzu ziur asko aurten.

Bai. Gonzalo Arkonadaren agindupean ibiliko naiz. Esperientziadun gizona da. Lau urte daramatza Sansen entrenatzen eta badaki maila zer nolakoa den.


Joan zen urtean eduki genuen helburua ez zen igotzea, baina igotzea postuetan sailkatzeko puntuan egon ginen. Aurten ere, ahalik eta denboraldi onena egiten saiatuko gara, ea goiko postuetan bukatzen dugun, eta igotzea faserako sailkatzen garen. Politak izango litzateke bigarren mailan filiala egotea, gazte betetarik. Horrela goiko taldera iristea errazagoa izango litzateke.

Zure taldekide batzuk utzita eraman dituzte beste talde batzuetara. Horrelakorik aipatu dizute zuri?

Ez. Ez didate ezer esan. Nirekin bakarrik hitz egin zuten esateko denboraldi-aurrea lehen taldearekin ibiltzea.

"Maila bakoitzera moldatu beharra dago eta horrek bere denbora eskatzen du"

"Gutxienez talde konpentsatua da. la postu guztietarako daude bi jokalarik"



JOKIN ETXEBARRIA

Mikel Gonzalez Koreatik etorri berria da eta nekatuta bukatu badu ere oso gustura ibili da Realarekin.

dearekin egingo nuela, eta gero jokatu Sansen egingo nuela.

Hala ere, polita izango litzateke horrelako aukera bat izatea. Bigarren mailan jokatzeko aukera ez da makala eta.

Reala non ibiliko dela uste duzu?

Zer gertatuko den ezin dezaket esan, ez dakidalako. Denboraldi hasieran beti daude esperantzak ondo ibiltzeko. Amorrortuk erditik gora ibiliko direla esan du eta beteko dela uste dut. Nik dakidana da, gutxienez talde konpentsatua dela. Ia postu guztietarako bi jokalarik daude, eta talde polita dago.

Zer moduz Lee Chun Soorekin?

Ez dut berarekin gehiegi tratatu. Libre antzean ibiltzen da. Gainera Lee Korean izar bat da. Hemen Beckham den moduan. Gainera han gauza arraro bat gertatzen da; jarraitzaileak ez dira izaten talde batenak, baizik eta jokalarik batenak, eta berdin die non jokatzeko duten.

Aspaldiko partez, berriz ere, hiru debagoiendar Realean

Agustin Arantzabal bergararrak Zaragozara alde egin zuenetik ez ditugu hiru debagoiendar izan Realean. Hori, aurtengo denboraldi-aurrearekin puskatu da, Mikel Gonzalezek, Korean, lehenengo taldearekin debuta egitearekin batera. Egia da Brecheten gastroenteritis bat tarteko izan zuela aukera arrasatearrak. Baina gutxienez, minutu batzuk izan zituen, eta gazte askok duten ametsa gauzatzeko aukerari probetxua atera zion. Hala ere, Realarekin hiru debagoiendarrek jarraituko dutelako esperantza ez da handiegia. Mikelek ez du aukera gehiegi lehen taldearekin jarraitzeko eta ziur asko denboraldi osoa Sanserekin egin beharko du. Baina gutxienez denboraldi-aurrea egiteko deitu diote, eta horrek esan nahi du etorkizunean ere kontuan hartuko dutela.


Beste biei dagokienez, postua irabazi beharko dute, bai batak eta bai besteak. Aitor Lopez Rekarteren kasuan, Zubiaurrenarekin berriz ere postua irabazia zuela zirudien, baina Cifuentesekin kontuz ibili beharko da. Eta Barkerori dagokionez, joan den urtean gertatutakoa ikusita, batek daki aurten nola ibiliko den.

KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Amaitu dira Bergarako 'Uztaileko ostiralak' musika saioak | 22
- Abuztuan ibarreko jaiez gainera, musika eta antzerki ekitaldiak ere badira aukeran gurean | 23

Maria Urtzelai
'Au revoir
trionfadoreak'
antzezlanean ari da
Antzerkiolarekin | 26

RUTA QUETZAL ESPEDIZIOA OÑATIN



ARTZAIN MUNDUA

Ruta Quetzalen parte hartzen ari diren 400 gaztetik gora izan ziren Arantzazun, egunean. Artzain eskolaren berri ere han jaso zuten.

RUTA QUETZAL DEBAGOIENEAN | URBIA, ARANTZAZUN, ARAOTZEN ETA OÑATIN EGON ZIREN ESPEDIZIOKO KIDEAK EGUENEAN

Bost kontinenteetako gazteak Oñatin, Ruta Quetzal espedizioarekin

Ekainaren 19an abiatu ziren IQUITOSETIK, PERUTIK, eta EUSKAL HERRIAN, BILBON, AMAITUKO dute espedizioa uztailaren 29an. 52 herrialdeetako 350 gaztek hartzen dute parte aurtengo ekitaldian

Edu Mendibil

Nekatuta, espedizioko gazte askok oinetan *babak* zituztela iritsi ziren Ruta Quetzal espedizioko kideak egunean Oñatira. Bero handia izan zuten egun osoan eta Urbia eta Araotz bitartean egindako ibilaldiarekin nahikoa sufritu zuten. Hala ere, baziren etapa ondo bukatu zutenak, Imanol Zabaleta gasteiztarra tartean. Ama oñatiarra dauka, eta ondo baino hobeto ezagutzen ditu amaren jaioterriko parajeak. Pedro Altuna eta Txaro Basurto aitona-amonak ere zain zituen Oñatiko Unibertsitatean.

Arabatik Urbiara etorri ziren Ruta Quetzaleko partaideak. Guztira, 52 herrialdeetako 350 gaztek

hartzen dute parte aurtengo ekitaldian. Ekainaren 19an abiatu ziren IQUITOSETIK, PERUTIK, eta EUSKAL HERRIAN, BILBON, AMAITUKO dute euren *tourra* hurrengo egubakoitzean, uztailaren 29an.

Ruta Quetzal egitasmoa 1979. urtean jarri zuten abian. Kultura eta abentura uztartuz, 16-17 urteko gazteen artean nazioarteko kooperazioa bultzatzea du helburu.

URBIATIK ARAOTZERA

Esan bezala, egunean, goizeko bederatzi eta erdiak aldera iritsi ziren Arantzazura, Urbian egon eta gero. Artzain Mundua elkarreko Miren Elgarrestak artzainen lanaren gaineko azalpenak eman zizkien eta artzaintza giroko

hitzak batzen dituen hiztegitxo bana oparitu zien.

Handik, espedizioko begiraleek ezarritako ordena jarraituz, espedizioko kideek Araotzera jo

Urbia eta Araotz bitartean egindako ibilaldiarekin nahikoa sufritu zuten

Andoni Gartzia alkateak harrera egin zien Unibertsitatean

zuten, ordu eta erdi inguruko ibilaldia eginez. Lope de Agirreren jaiotetxean izan ziren. Hala ere, Miguel De la Quadra-Salcedok argitu zien moduan, "ez da ziurra hemen jaio zela". De la Quadra-Salcedok Lope de Agirrerri buruzko liburu bat zeraman poltsikoan azalpen txiki hura esan zuenean.

Arratsaldean, Andoni Gartzia Oñatiko alkateak harrera egin zien gazteei Sancti Spiritus Unibertsitatean eta Jose Antonio Azpiatzuk hainbat datu historiko azaldu zizkien. Jarraian, Oñatiko txokolatari esker indarrak berreskuratu ahal izan zituzten espedizioko kideak.

Eguna amaitzeko, Oñatiko herrigunea bisitatu zuten.

RUTA QUETZAL ESPEDIZIOA OÑATIN

MIGUEL DE LA QUADRA-SALCEDO | RUTA QUETZALEKO ZUZENDARIA

"Che Guevararen aitzindaria izan zen Lope de Agirre"

E.M.

Miguel De la Quadra-Salcedo, Ruta Quetzaleko zuzendaria, ezaguna dugu. Bere bizkaitar jatorria harro-harro aldarrikatzen du eta pozik zegoen Ruta Quetzal Euskal Herrira heldu izanagatik.

Nolatan heldu da Ruta Quetzal Oñatira aurten?


Bueno, ez da aitzakiarik behar Euskal Herrira etortzeko. Edozein modutan *On Kixote* argitaratu zeneko 400. urteurrena ospatzen dela eta, ideia ona iruditu zitzaigun Elgeako errotak ikusi eta ondoren Oñatira etortzea. Paraje ederrak daude hemen eta asko gozatu dugu Urbia eta Arantzazu inguruan. Orain dela sei urte ere Oñatin izan ginen.

Lope de Agirrearen jaiotetxean izan zarete.

Tira, zalantzak daude guk bisitatuko etxea Lope de Agirrearen jaiotetxea ote den. Amaren alde-tik zuen Lope de Araotz aitona-rena izan daiteke. Guevarako kondeak mingaina moztu zion Lope de Araotzi. Edozein modutan, gauza ederra da Lope de Agirre sortu zeneko tokira etortzea. Askok hitz egin da Lope de Agirrearen gainean, zoroa zela, bestea zela... Nik estimu handia diot. Egin zuen guztia interesgarria da. Aspalditik irakurtzen dut Miguel Oteroren *Lope de Agirre: El principe de la libertad* liburua. Amerikako herrialdeetako independentziak ulertzeko ezinbesteko figura da. Che Guevararen aitzindaria dela esango nuke.

Che Guevara hil zutenean han zinen.

Bai, Bolivian ginen Che Guevararen pistaren atzetik eta haren hilketaren berri iritsi zitzaigun. "No me dispares, soy el Che" esan zion Chek atxilotu zuen soldaduari. Hark tiro bat eman zion,



E.M.

"Gustuko dut nola uztartzen den hemen modernitatea eta natura"

"Ez da aitzakiarik behar Euskal Herrira etortzeko. Paraje ederrak dira hemen"

izter inguruan, baina gero zazpi tiro egin zizkioten. Gorpua zegoen tokira iritsi zen lehen kazetaria izan nintzen eta saria eman ziguten Che Guevararen hilketaren gaineko erreportajearengatik.

Euskal Herrira sarri etortzen zara?

Ahal dudan guztietan. Gustatzen zait nola uztartzen den hemen modernitatea, industria, eta natura. Azaro aldera itzuliko naiz berriz, pagoak eta ikusteko, ikaragarri politak egoten dira-eta. Euskal Herriari oso lotuta nago: etxean eguzki-lore bat daukat, hara sorginik ez sartzeko.

• KLAXK ELKARTEKOEN OMENALDIA



KLAXK ELKARTEKO OHOREZKO KIDE. Anton Azpiazu Klaxk elkarteko presidentea eta Felix Arrillagak txokolatezaleen ohorezko kide izendatu zuten Miguel De la Quadra-Salcedo. Elkarteko kideen zapia jarri zioten eta, era berean, txokolatearekin egindako artzain baten irudia eman zioten. Hainbat kontinentetako txokolateak dastatu ahal izan zituzten Klaxk elkartekoek eta Ruta Quetzal espedizioeko kideek.



AMAREN JAIOTERRIAN. Imanol Zabaleta gasteiztarra dugu espedizioeko kideetako bat. Maria Elena Altuna, bere ama, Oñatikoa da eta ilusio ikaragarria egiten zion espedizioarekin Oñatira heltzeak. Ruta Quetzalen parte hartzeko aukera musikari esker lortu zuen: piano partitura bat egin zuen lehiaketan. Oso gustura ibili dela diosku. Ezagututako tokietatik Peruko Cuzco hiria gustatu zaio gehien.

• ZER MODUZKO ESPERIENTZIA GERTATU DA RUTA QUETZAL?



ZURIÑE ALDANA | GORDEXOLA

"Arantzazu aldean egindako ibilbidea gogorra egin zaigu. Hala ere, gauza ederra da horrelako espedizio baten parte hartzea. Aspaldiko ametsa nuen eta oraingoan zortea izan dut eta betetzen ari naiz".



LARA ROMERO | VIGO (GALIZIA)

"Bidaian ezagututako tokiak eta jendea zoragarriak izan dira. Esperientzia guztiz aberasgarria da. Horrenbeste herrialdeetako jendearekin egon ahal izatea ikaragarria da. Merezi izan du".




AMANDA GARRIDO | SANTIAGO (TXILE)

"Askok gozatu dut espedizioarekin. Hiriak ezagutzeaz gain, ibilaldi dezente egin ditugu. Beste herrialdeetako jendea ezagutzea izan da onena. Gogorra egingo zaigu bidaia amaitzean lagunak agurtzea".



RODRIGO ARIZNABARRETA | GASTEIZ

"Positiboa izan da, gogorra den arren. Lo gutxi egiten dugu, 05:00etan jaikitzen gara eta. Edozelan ere toki ederrak ikusteko aukera izan dugu. Machu Pichura joatea mundiala izan zen".



DISKOA ABIAN | URTE AMAIERARAKO NAHI DUTE DISKOA KALEAN

Potemkin talde oñatiarra diskoa grabatzen hasi da gaur Bonberenean

Hamabi kantuk osatuko dute taldearen lehen lana. Maketako abestiei kantu berriak gehituko zaizkie

Larraitz Zeberio

Gaur, astelehena, sartu dira Potemkin taldeko lau musikariak Bonbereneako grabazio estudioan. Taldeak zortzi bat egun emango ditu Tolosa aldean lehen diskoa grabatzen.

“Hamabi kantuk osatuko dute diskoa”, azaldu digu taldeko baxua den Joxe Marik. Duela urtebete grabatu zuen taldeak lehen maketa. Bertan azaltzen diren kantu guztiak jasoko ditu diskoak, eta baita laukotearen abesti berriak ere. “Estudioan erabakiko dugu, baina gure asmoa da intro txiki bat ere grabatzea. Prest daukagu. Ikusi egin beharko da grabazioak zein emaitza ematen duen. Lokalean ondo entzuten da”.

WEBGUNEAREN ABIAN

Gogor aritu dira lanean oñatiarrak azken asteotan. “Estu-

dioan denbora oso azkar pasatzen da. Gauzak ondo prestatzen saiatu gara eta ia egunero entsetatu dugu azken asteotan”.

Taldeak grabazioan jarriko du orain ahalegin guztia. “Masterra diskoetxeetan aurkeztuko dugu, ea baten bat argitaratzera animatzen den. Bestela gure kontura kaleratuko dugu. Ez dakigu prozesu horrek zenbat denbora iraungo duen, baina asko jota diskoak kalean behar luke urte amaierarako”.

Webgunea ere zabaltzeko asmoa dutela agertu digute oñatiarrek. “Gure asmoa diskoarekin batera martxan jartzea da”.



JAZZ KONTZERTUA | TERESA ZABALZA SET ESPOLOIAN

Espoloiko zikloari amaiera emateko jazz intrumentala

Non. Bergarako Espoloian.
Zenbat jende. 100 bat lagun.
Iraupena. Ordubete pasatxo.

A.G.

Jazz instrumentalarekin eman zioten amaiera, barikuan, Espoloiko musika zikloari. Teresa Zabalza 5et-ek ordubete pasatxo emanaldia egin zuen eta gurtura egon ziren Zuhazti taberna ondora hurbildutako entzuleak.

GIRO ONA LAGUN

Teresa Zabalza piano-jotzaileak taldearekin batera argitaratutako *Euria* diskoaren aurkezpena egin zuen Bergaran.

Gitarrak, saxoak, kontrabaxuak eta bateriak laguntzen dute Teresaren pianoa. Boskoteak swing, cha-cha-cha eta bolero doinuak eskaini zituen, beti ere jazz pasarteekin bat eginez.

Kontzertu horrekin bukatu da aurtengoz Bergarako Udalak, Zuhazti tabernarekin batera Espoloiko plazan antolatutako musika zikloa. Jazzaren inguruko sei kontzertu izan dira.



EUSKAL DANTZAK | LORE GAZTEAK MONTEIRONEN

Gipuzkoako dantzak izan ziren, egunean, Lore Gazteak dantza taldearen ikuskizunaren ardatz nagusia. Ordu eta erdiko dantza saioan, ordea, beste dantzarik ere egon zen, hala nola, Otsagabiakoak (Nafarroa), Dominguillo (Bizkaia) eta Mendiko Soinua (Araba). 7-34 urte bitarteko 70 bat dantzari aritu ziren Monterrongo agertokian hamar bat musikariren laguntzarekin. | A.G.

MUSIKAIRE | ASTEBURUAN EMAN DIOTE AMAIERA JAIALDIARI

Cibelle brasildarraren musika elektronikoa izan zen Elorrioko jaialdiko azken txanpan

Non. Elorrioko herriko plazan.
Zenbat jende. 600 bat lagun.
Iraupena. Ordu eta laurden pasatxo.

A.G.

Hiru ikuskizun egin dira asteburuan Elorrion. Cibelle brasildarraren estiloa ez da egunero entzuten. Barikuan aritu zen Elorrioko herriko plazan. Neska gazte hau brasilgo Bossa Nova eskolako da. Han ditu errotuta bere sustraiak, baina oso bestelako emaitza da eskaintzen duena. Musika elektronikoa egiten du jazz ukituekin borobilduz. Tinbalak, baxua, gitarra eta bateria izan zituen lagun brasildarrak Elorrion.

Asteburuan, Celtish boskotea eta Clownx Teatre taldearen magia ikuskizuna ere egon dira Elorrion. Ekainaren 17an hasitako Musikaire amaitu da.



BALORAZIO POSITIBOA

Musikaireko antolatzaileak pozik daude aurtengo edizioarekin egindako kalkuluak bete egin direlako. Ikusle kopuru handia egon da, iaz baino jende gehiago. Emanaldiek, bestalde, maila oso ona erakutsi dutela jakinarazi dute. Nabarmentzekoak izan dira

antolatzaileen ustetan Las Migas taldea eta Terrafolk esloveniarak.

Aurtengo edizioan ahalegin aparta egin da dantza ikuskizunekin. “Maila handiko lau emanaldi izan dira. Musikaire hazi egin da esperimendu horrekin”, azaldu digute antolatzaileek.

0 km eta erabilitakoak

Volkswagen Multivan TDi /00
Volkswagen Multivan TDi /99
Ford Transit TDCi /01
Ford Transit TDCi /02
Peugeot 307 HDi /02
Peugeot 306 HDi /01
Peugeot 206 HDi /01
Ford Focus Wagon TDi /02
Ford Focus Wagon TDi /02
Toyota Wagon DHD /02
Ford Galaxy TDi /02

Citroën Berlingo HDi /02
Seat Ibiza SDi /02
Ford Fiesta TDCi /04
Subaru Imp 2.0i TT /97

4x4:

Toyota Land Cruiser /99
Toyota Land Cruiser /01
Toyota Land Cruiser /00
Mitsubishi /98
Opel Frontera Sport /02

MENDIOLA

San Andres 10 D
Tel.: 943 77 21 00
ARRASATE

ABUZTUKO KULTURA HITZORDUAK | ARETXABALETAKO JAIK, OÑATIKO 'KALEAN 2005' ETA BESTE HAINBAT EKINTZA AUKERAN

Abuztuan ere egongo da zer entzun eta ikusi Debagoieneko bazterretan

Gainean ditugu Aretxabaletako Andramaixak. Ordura arte, aspertzeko aitzakiarik ez

Larraitz Zeberio

Abuztuan jaiak izaten dira han eta hemen. Aretxabaletan hilaren 14an hasiko dira Andramaixak. Debagoieneko hainbat auzotan ere egongo da non dibertitu.

Kanpai hotsak entzungo dira Aretxabaletan herriko jaien hasieraren berri emanez. Lau eguneko egitarau zabala prestatu dute, tartean zenbait berrikuntza eta berezitasun. Aretxabaletako abesbatzak egingo du aurten pregoia. Alkateak egin izan ditu orain arte pregoilari lanak. Abesbatzak, baina, 25 urte betetzen ditu aurten eta herriak omenaldi xume hau eskaini nahi die. Bestelako omendurik ere egongo da. Andra Mari egunean, meza nagusiaren ondotik, Udalak bere esker ona adieraziko die herrian 100 urte bete dituzten Agustindar lekaimiei.

Txosna gunean, aurten, inoiz baino ekitaldi gehiago egingo dira. Bertso saioak, rock kontzertuak, karaoke eta play back saioa, galtzontzillo, kulero eta

tanga lasterketa, herri bazkaria, makarroi jana... Giro animatua egongo da bertan ziur asko.

Gainera, abuztuaren 15ean Bat Gehiago musika taldeak kontzertua egingo du eta hor arituko da Julen Kobos aretxabale-tarra, taldeko abeslari.

OÑATIN, MUSIKA LAU HAIZETARA

Oñatin, beste batzuetan legez, Kalem 2005 egingo da. Gaztekuak kalera aterako ditu abuztuan kontzertuak. Hiru ekitaldi egingo dira. Abuztuaren 21ean, domeka, Trokolo Stylers osatzen duten Iban Nikolai eta Gogui Stylek didjeridoo eta perkusio hotsak ekarriko dituzte Oñatira. Hurrengo domekan, 28an, Surf Festa egingo da atzeko kalem The Rumbles eta The Sñinters taldeekin. Antzerkia proposatzen digute Oñatin hilabeteko azken domekerako. Trapu Zaharra antzerki taldeak *Pisutxo*a antzezlan eka-riko du herrira.

BESTE AUKERA, ZINEA

Eguenetan hainbat film ikuteko aukera izango dugu Bergaran zein Elorrion. Bietan ere aire zabaleko proiektzioak izango dira: Bergaran, San Martin plazan eta Elorrion, berriz, herriko plazan.

Organo kontzertua ere egongo da Bergaran. Abuztuaren 10ean Jose Luis Echechipiak emanaldia egingo du San Pedro parro- kian, 20:00etan.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

GAZTELEKUKO KONTZERTUAK KALEAN IZANGO DIRA

Abuztuan hiru izango dira Gaztekuak kalem egingo dituen ekitaldiak. 21ean, domeka, didjeridoo eta perkusio doinuek hartuko dituzte Oñatiko kaleak. 27an, Surf Festa egingo da The Rumbles eta The Sñinters taldeekin. 28an, azkenik, kale antzerkia egingo dute Trapu Zaharrak antzerki taldekoek.

Abuztuko jaien egitaraua auzoz auzo

ARAMAIO

- **San Esteban jaiak** (Uribarri auzoa). Abuztuak 3-4. Lehen egunean, meza eta dantzaldia egingo dituzte. Bigarrenegun, meza, kar-jokoaren finala, plater-tiro txapelketa, umeendako puzgarriak eta auzo afaria.
- **Andramari jaiak** (Barajuen auzoa). Abuztuak 15-16. Andra Mari egunean meza, haur jokoak eta karta-jokoak. Hurrengo egunean, meza eta auzotarren bazkaria eta afaria.
- **Andramari jaiak** (Olaeta auzoa). Abuztuak 15-16-17. Andra Mari egunean euskal dantza saioa (13:30) eta umeendako antzerkia (18:00). 16an, berriz, auzoko emakumeen lanen erakusketa eta dantzaldia Gardokirekin (17:00). 17an, Benidormerako bidaia zozketatuko dute.

ARRASATE

- **San Esteban jaiak** (Udala auzoa). Uztailak 31-Abuztuak 3. 31an, auzoko umeen pilota partidak. 2an, jubilatuen afaria eta dantzaldia. 3an, meza

(11:00), luntxa, haur jolasak (18:00), Gorritiren abere erakustaldia eta dantzaldia (22:30) egingo dira.

- **San Bartolome jaiak** (Uribarri auzoa). Abuztuak 24-25. Lehen egunean, meza, luntxa, buruhandiak, mus txapelketa, bertso saioa (Peñagarikano-Mañukorta) eta dantzaldia egingo dira. 25ean, berriz, suziriak, meza, haur jolasak eta auzo bazkaria.

BERGARA

- **San Bartolome jaiak Zabaletamendin** (Angiozar auzoa). Abuztuak 24. Meza, luntxa, dantza saioa, bolo txapelketa eta erromeria egingo dira, besteak beste.
- **Kofraixak** (Osintxu auzoa). Abuztuak 26-28. Lehen egunean, txupinazoa, marmitako txapelketa, bizikleta martxa, tripa festa eta dantzaldia egingo dira. Zapatuan, haur jolasak, bertso poteoa (Silbeira, Fredi Paia eta Jokin Urangarekin), herri bazkaria, koadrilen arteko

herri-kirolak, rock kontzertua (Brigada Criminal, NCC eta Potemkin), salda banaketa eta kantontzilo eta kulero lasterketa egingo dira. 28an, herri-kirolak, dantzak, pilota partidak eta triki poteoa.

ELGETA

- **Salbadorko jaiak** (Salbador ermita). Abuztuak 6. Meza (13:00) eta salda zein txorizo banaketa. Eguaztenerako deitu dute jaiak antolatze bilerara Intxorta elkartean, 19:30ean.
- **San Roke jaiak** (San Roke ermita). Abuztuak 16. Meza (12:00). Jarraian, pintxoak eta soinu-jotzaileak. Bezperan, txopo altxatzea egingo da.

ESKORIATZA

- **Andramari jaiak** (Gellao eta Mazmela elizateak). Abuztuak 15. Meza (12:00). Jarraian, luntxa eta trikiti giroa.

OÑATI

- **San Lorentzo jaiak** (San Lorentzo auzoa). Abuztuak 5-10. Lehen egunean, txupinazoa

eta auzoko gazta zein sagardo dastatzea (18:00). Trikitilari, bertsolari eta txiste kontalariekin poteoa jarraian. Gauean, dantzaldia. 6an, haur parkea (16:00), mus txapelketa (16:30), trikipoteoa (19:30) eta erromeria (23:00). 7an, berriz, meza (12:00), bertsolariak (Mendizabal eta Arzallus), auzo bazkaria eta erromeria (23:00). 9an, Salbea egingo da 20:00etan auzoko ermitan. 10ean, meza (12:00) eta luntxa Larrain-Gain elkartean.

- **Urexolako jaiak** (Urexola auzoa). Abuztuak 15-16. Andra Mari egunean, txupinazoa, auzategiko meza (11:00), luntxa eta omenaldia jubilatuei, haur jolasak (12:30), bolo eta mus txapelketak, erromeria (23:00) eta txokolatada egingo dira. 16an, berriz, auzoko hildakoen aldeko meza, haur jolasak, briska eta bolo txapelketak, jaietako rifa zozketa, auzoko bazkaria, txerri harrapaketa eta erromeria. Gaueko 00:00etan amaituko da festa.

Zinea

BERGARA

- ABUZTUAK 4**
 - **22:00:** *Las Mujeres Perfectas* (gaztelaniaz). San Martin plazan.
- ABUZTUAK 11**
 - **22:00:** *Bechkam izan nahi dut* (euskaraz). San Martin plazan.
- ABUZTUAK 18**
 - **22:00:** *Los Padres de Él* (gaztelaniaz). San Martin plazan.
- ABUZTUAK 25**
 - **22:00:** *George eta Herensugea* (euskaraz). San Martin plazan.

ELORRIO

- ABUZTUAK 4**
 - **22:30:** *Venciendo el miedo* eta *En nombre de nuestra coca* (Bolivia). Plazan.
- ABUZTUAK 11**
 - **22:30:** Animaziozko film laburrak. Plazan.
- ABUZTUAK 25**
 - **22:30:** *Nontzeberri Gaua*. Animazioak. Plazan.



UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHE

Argazki guztiak fotoblog honetan:



IGERILEKUAN. Ekainean Iratxeko igerilekuan egin zuen argazkia antzuolarrak. Aritz, haren semea eta ilobetako bi, Beñat eta Unai, agertzen dira. Kontrakoa dirudien arren, inor ez zela ito diosku. /Argazkia: Beñar Kortabarría /Antzuola



SAHARAKO DESERTUA. Desertuaren sarreran berebere modernoa aurkitu zuten, beroari nola edo hala aurre egiten. Ikusitako paraje isolatuek erabat txunditu zuten argazkilaria. /Argazkia: Nerea Agiriano /Eskoriatza



GORPUTZEN SILUETA. Eguzkiaren aurrean jartzeko eskatu eta imaginazioa erabiliz gorputzarekin irudia osatzeko eskatu zien lagunei argazkilaria. Mar Menorren egin zuten argazkia. /Argazkia: Itziar Egiguren /Oñati



NIGER IBAIA. Afrikako ibai horretan barrena egindako bidaiari atera zuten argazkia duela bost urte. Moptitiki Tonbuktura bidean, hain justu ere. /Argazkia: Igor Larrañaga /Bergara

Baldintzak:

- Uda argazkiak izan beharko dute: aurtengoak edo beste uda batekoak.
- Inoiz argitaragabeak.
- Koloreetan zein zuri-beltzean.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Epea zabalik dago 2005eko irailaren 19ra arte.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko bereizmen eta kalitatearekin).
- Argazkiak bidali ahal izango dira e postaz argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
 - Arrasate: Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500 Arrasate.
 - Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate.
 - Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara.
 - Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan gutun-azal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta jpg formatuan.
- Parte-hartzaileek nahi beste argazki bidali ahal izango dituzte.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, edo beste komentario laburren bat).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero; azken sorta, irailaren 26ko *Asteleheneko Goienkaria*-n.
- Urriaren 3ko *Asteleheneko Goienkaria*-n aditzera emango dira irabazleen izenak.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko. Baina lehiaketarako argazki guztiak hartuko dira aintzat.
- Epaimahaiak baloratuko ditu: gaia, kalitatea, originaltasuna, momentua, bizitasuna..., besteak beste.
- Argazkiak *Asteleheneko Goienkaria*-ren artxiboan geratuko dira, etorkizunean erabili nahi badira ere, betiere egilea aipatuta.

NEKO GOIENKARIA I. LEHIAKETA



www.goiena.net/blogak/udakoargazkiak



ZEIN FRESKO DAGOEN URA... Kuban, Ekialdeko hondartzetan ateratu zuten argazkia, hango mutikotxo bat bainua hartu eta uretatik irteten ari dela. /Argazkia: Alazne Guridi /Oñati



ZAINDARI BEREZIAK. 2002ko oportoretan Pazko Uhartera bisitatu zuen bikoteak eta AHU TONGARIKI ezagutu zuten. Han zeuden, gure zain, 15 mohaiak, eta argazkirako jartzea onartu zuten. /Argazkia: Ibane Letona /Arrasate



OIOLOA HARRAPATZEN. Aurreko udan izan zuten lehengusuaren ezkondu aurreko agurra. Debara joan ziren paint-ballean jolastera. Hurrengo baten berriz joango direla segurtatu digute. Hain ondo pasatu zuten... /Argazkia: Aitziber Altube /Oñati



LROA ETA IGUANA. Mexikon, Playa del Carmengo dendan baten aurrean egindako argazkia da. Tursitendako ondo prestatua dago, eta, ordainduz gero, animaliekin ere egin daitezke argazkiak. /Argazkia: Aitor Bañares /Eskoriatza

Sariak

1. saria: Olympus E-300 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik. 8 milioi pixel. / Zuiko digital 14-45 mm objektiboa. / Objektibo aldagarriak. / Flash eta guzti. / 1,8 pulgadako LCD pantaila atzealdean.



- **2. saria:** bi gaueko/hiru eguneko egonaldia Kantabria edo Asturiasen Eroski Bidaiak agentziaren eskutik.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
- **SARI BEREZIA:** parte hartzaile guztien artean sari sorpresa.

Babeslea:



gizarte ekintza

Laguntzaileak:

GURE AMETSA
JATETXEA

EROSKI bidaiak
mereri duzu

Kiñu
argazkilariak

Mobiliario
ARENAZA
ALTZARIAK • DISEINUA

Formatu txikiko antzerki lanak egin ditu luzaroan. Orain, ordea, Antzerkiola Imaginarioaren azken proiektuko aurpegi berria da. Nihilistaren pertsonaia gorpuzten

du ekainean estreinatzen zen 'Au Revoir Triunfadores' antzezlaneko euskarazko bertsioan. Badira bost urte antzezle bergararra Bilbora bizi izatera joan zenez

geroztik. Bere lanbidearekin lotuta dauden gauza pila bat aurkitzen ditu hiriburuan. Saiatua da eta bestelako proiektuetan ere badabil, esaterako, Laressistense konpainian.

MARIA URTZELAI | ANTZEZLE BERGARARRA

"Formatu txikiko lanak egin ditut luzaroan eta gustura nabil Antzerkiolan"

M. Deogracias/L. Zeberio

Au Revoir Triunfadores ez da Antzerkiolarekin egiten duzun lehen lana, ezta?

Ez. Oraintxe hiru urte izango dira eurekin hasi nintzela. *Ritos* proiektuan sartu nintzen Antzerkiolan. Titiriteroen modura ibili ginen herri txikietan gure lana eskaintzen. Elantxoben, Ean, Otxandion... Kamioi batekin mugitzen ginen eta ez genekien harrera zein izango zen.

Nolakoa izan da esperientzia hori?

Oso bitxia, baina aberasgarria ere bai. Beste modu batera lan egitera behartzen zaitu eta gure artean komunikatzeko beste modu batzuk jorratzeko aukera izan genuen. Ikerketa bat izan zen. Ez dakizu herriak nola hartuko zaituen, ezta zure lana nola ulertuko duen ere. Horrek dudan jartzen zaitu uneoro.

Kale antzerkian eskarmentuduna zinen, Maria?

Bai. Hortz Muga proiektuaren barruan umeendako musikal bat egin genuen. Kale antzerkia zen eta bertan ezagutu nituen Antzerkiolako Ander Lipus eta Aitor Agiriano, Antzerkiolako sortzaileak. Hor ikasi nuen euren lana egiteko modua zein den. *Ritos* horren ondotik etorri zen. **Kaputten Kantakizeneko antzez-lana jarraian etorri zen, ezta?**

Bai. *Ritos*en ondotik aukera berri bat etorri zen. Udan estreinatzen genuen *Kaputten Kantak*. Formatu txikiko musikal da. Bi neskak egiten dugu eta heriotzari buruzkoa da. Joan den uda aurretik estreinatzen genuen eta aurtengo ikasturte osoa eman dugu emanaldiekin.

Formatu txikiko antzerkiera itzuli zara, beraz, lan horrekin?

Bai, antzezle kopuru aldetik zein eszenografia eta argiztapen aldetik. Aretu txikietara eraman dugu, gaztetxe eta kultura etxetara. Dantzatu eta abestu egiten genuen. Antzinako musikaletan oinarritu ginen forma emateko.

Zelan moldatzen zara kantuan eta dantzan?

Ondo. Nire proposamena ere izan zen musikala izatea. Antzezlan horretan, gainera, ez genuen heriotza fisikoari buruz hitz egiten baizik eta eguneroko heriotza txiki horiei guztiei buruz. Askotan, zerbait politagoaren hasiera dira.

Poetikak garrantzi handia izan du beti Antzerkiolaren lanetan, ezta?

Bai. Heriotza beti agertu da Antzerkiolaren proposamenetan eta poetika ere bai. Ez du inoiz gauzei buruz argi eta garbi hitz egin. Bere lanak beti daude poetika handiz jantziak.

Au Revoir Triunfadores antzezlaneko euskarazko bertsioan ari zara. Lana aurretik estreinatzen gaztelaniaz. Lagungarria da?

Gaztelaniaz egin zen muntaia eta euskarazko bertsioa egitea azken orduko erabakia izan zen. Zuzendariak ikusi zuen hizkuntza aldetik nire euskararen egitea ondo legokeela. Ni orduan libre nengoen eta pentsatzeko aukerarik ere ez nuen izan. Antzezlan estreinatuta zegoen, baina emanaldi gutxi batzuk besterik ez ziren egin. Barakaldon egin zen estreinaldia eta, uste dut hiru funtzio egin zirela, besterik ez. Gaur egun, oraindik ere, aldatetako egiten gabiltza.

"Antzoki handietan argiek tenperatura ezberdina ematen dute. Publikoa ere desberdina da"

"Programatzen da, baina gaizki. Programatzaileek ez dute inoiz arriskurik hartzen"



ANTZERKIOLA IMAGINARIOA

Maria Urtzelai antzezle bergararrak nihilistaren pertsonaia gorpuzten du *Au Revoir Triunfadores* antzezlanean.

Azpitik edo goitik nahiago duzu lan egitea?

Goitik. Orain arte formatu txikiko antzerkiak egin ditut. Egia esan tamaina handiko muntaiak egiteko gogoia baneukan. Antzoki batean, esaterako, argiek tenperatura ezberdina ematen dute. Publikoa ere beste modu batean dago. Batzuetan hotzagoa da. Beste jarrera bat daukazu.

Zein da zure pertsonaia?

Oso pertsonaia atsegina da. Nihilistarena egiten dut. Antzerkian pertsona guztiek ditugun bi aldeak agertzen dira eta nik nihilistaren alde memeloa jorratzen dut *Au Revoir Triunfadores*en.

Debagoienara ekarriko duzue obra?

Ez dakit. Udan ez da programatzen eta urrira arte itxaron beharko dugu.

Antzokietan ondo programatzen da zure iritziz?

Programatzen da, baina batzuetan gaizki. Duela gutxi Arriagan egon ginen eta astelehen batean programatu gintuzten. Ez zen inor etorri. Gero, enteratzen zara ez dakit zein konpainia datorrela asteburuan. Azkenean, dirua dago beti guztiaren atzean. Programatzaileak ez dira arriskatzen nahiz eta gu Bilbokoak izan.

Bestelako proiektuetan ere bazabiltza, ezta?

Horrela da. Lanbide honetan ezin zara geldirik egon. *Au Revoir Triunfadores* lanaz gain, *El Feeling es así* egiten nabil beste lagun batekin. Hemen ere dantzan egiten dugu. Beste proiektu batean ere sartuta nago. Bederatzi bat lagun gara eta Laressistense du izena gure taldeak. Formatu txikiko lanak egiten ditugu han eta hemen. Ari gara pixkanaka.

OÑARGI, S.L. ARGI-MOZKETA OHARRA

Idatzi honen bidez jakinarazten dizuegu, sarearen hobekuntzak direla eta, OÑATI osoan argia moztuko dela ondorengo egunetan:

- **Abuztuaren 1ean** (astelehena)
14:30etatik 16:00etara.
- **Abuztuaren 4an** (eguna)
14:30etatik 16:00etara.

Barkatu eragozpenak, ESKERRIK ASKO.

OHARRA: Aurrez abisatu gabe emango da argia.

Oñatin, 2005eko uztailaren 25ean.

Ohi baino liburu gehiago hartzeko aukera ematen dute liburutegi gehienek

Liburuak irailera bitartean hartzeko modua dago.

Bestalde, abuztuan zabalik iraungo du Arrasateko udal liburutegiak

Leire Kortabarria

Arrasateko udal liburutegia zabalik egongo da abuztu osoan, aurten lehenengo aldiz; orain arte, 15 egunean itxita egoten zen. Hori da uda osoan oporrrak hartuko ez dituen Debagoieneko liburutegi bakarra. Hala ere, liburuak mailegatu nahi dituztenek datorren aste osoa dute oraindik horretarako edozein liburutegitan.

Batez ere oporretan joango direnei laguntzeko, liburutegi gehienek uzten dute hiru liburuko muga gainditzea eta nahi beste maileguan hartzea, eta beroiek bueltatzeko epea iraila arte luzatzea -Oñatikoaak hiru liburuko muga errespeta-

tzen du, bazkide bakoitzak hainbat liburutegitan mailegatzeko aukera duelako.

Ibarreko liburutegiek diotenez, bazkideek aprobetxatzen dute aukera hori. Arrasateko haur liburutegiko arduradunak, Asun Agirianok, dioenez, batez ere umeak baliatzen dira aukera horretaz. Bergarako liburuzainek diotenez, urte osoan irakurtzen dutenek hartzen dituzte orain ere liburu gehien, baina bada abuztuko aisialdia horretarako aprobetxatzen duenik ere.

CD eta DVDei dagokienez, liburutegi bakoitzak bere arauak ditu: batzuetan, Aretxabaletan, Arrasaten edo Bergaran kasu, horiek hartu ahal izango dira iraila arte.

EGUTEGIA

Udal liburutegiak itxita egongo dira honako egunetan: Aramaio, Antzuola eta Elgetakoa, abuztu osoan; Eskoriatzakoa eta Aretxabaletakoa, abuztuaren 28ra arte; Bergarakoa, abuztuaren 8tik 15era bitartean; eta Oñatikoa, abuztuaren 15era bitartean.

Labur

Euskarazko postal lehiaketa antolatu du Txirritola euskara elkarteak

Aramaioko euskara elkarteak, Txirritolak, postal lehiaketa antolatu du bigarren urtez. Helburua da jendea euskaraz idaztera animatzea. Horrenbestez, parte hartzeko postal baten euskaraz berba batzuk idatzi eta honako helbidera bidali behar da: Nardeaga kalea z/g, 01.160 Aramaio (Araba). Irabazlea irailean aukeratu dute, eta landetxe baten asteburua oparitu dote.

Bestalde, txalaparta ikastaroa emango du Txirritolak irailean. Izenematea tabernetan ipini dituzten orrietan egin behar da.

Jose Ramon Elortza elgoibartarraren erakusketa zabalik dago aste osoan

Arregi markoztatze dendan, Arrasateko Maala kalean, duzue Jose Ramon Elortza (Elgoibar, 1967) margolariaren 18 lan ikusteko aukera. Motibo geometrikoak erabilia, abstrakzioak egiten ditu Elortzak, betiere kolore biziak erabilia.



Lau Oscar irabazitako 'Million dollar baby' filma Eskoriatzan eta Elgetan

Million dollar baby filma emango dute gaur, astelehena, Eskoriatzako plazan, 22:15ean, eta etzi, eguaztena, Elgetako Espaloia antzokian, 21:30ean. Hala, film bikain hori ikusi ez dutenek orainxe dituzte bi aukera. 2004ko Hollywoodeko Oscar sari banaketan jaun eta jabe izan zen film hori: lau sari irabazi zituen, kategoria garrantzitsuenetako batzuetan, eta zinemako beste 30 sari irabazi eta 23 izendapen jaso ditu. Clint Eastwood da zuzendaria eta, Hillary Swank-ekin batera, protagonista ere.

Hitzorduak



'CARBON CLUB' KALE ANTZERKIA EGINGO DU MARKELIÑE TALDEAK |

Meatz baten, lau pertsonaiaren kezkak azalera ekartzen ditu antzezlanak

Markeliñe talde zornotzarrak *Carbon Club* kalekabareta ekarriko du Arrasateko plazara hilaren 30ean, zapatua, 22:30ean, antzezlan horrekin egiten diharduen biraren barne.

Meatza, lurrazpiko bizitza, aintzat hartu du taldeak, lau pertsonaiaren gorabeheren bitartez

adiskidetasunaren eta eguneroko aldarrikapenen gaineko gogoetak pizteko. Protagonista, *Jose*, meatzeko tuneletatik barrena doa eta, halako baten, *Carbon Club* kabareta aurkitzen du. *Jose*-rekin batera, kanpoan zain duen emaztegaia, meatzeko laguna eta kabareteko neska agertuko dira.

ZINEMA |

• *Los increíbles* filma emango dute Aretxabaletan

Herriko plazan izango da animaziozko film horren emanaldia bihar, martitzena, 22:30ean.

• *El pequeño vampiro* filma emango dute Eskoriatzan

Herriko plazan emango dute film hori etzi, eguaztena, 22:15ean.

• Film emanaldirik ez da egongo Oñatin

Ez da zinema emanaldirik egongo Oñatiko kultura etxean irailera arte.

IKASTAROK |

• KZGuneako foroan gaineko ikastaroa Antzuolan

KZGuneako foroak eta FAQ delako Internet ikastaroa emango dute KZGunean hilaren 28an, eguena, 11:00etatik 13:00etara.

• Aretxabaletako KZGuneako ikastaro eskaintza

Honako Internet ikastaroak emango dituzte egunotan KZGunean: *ViaMichelinekin* bidaiatzeko (bihar, martitzena, 18:00-20:00); egunkaria irakurtzeko (etzi, eguaztena, 17:00-18:00) eta itsasoaren gainekoa (hilak 28, eguena, 16:00-18:00).

• Internet ikastaroak emango dituzte Oñatiko KZGunean

Internet ikastaro batzuk emango dituzte KZGunean: *KZGuneako foroak eta FAQ* delakoa

(bihar, martitzena, 17:00-18:00); etxebizitza aurkitzeko (etzi, eguaztena, 17:00-18:00) eta egunkaria irakurtzeko (hilak 28, eguena, 17:00-18:00).

ERAKUSKETAK |

• *Kartoiak* erakusketa dago Elgetako Espaloia antzokian Jokin Rodriguez arrasatearraren 18 lan daude erakusgai. Aste osoan dago zabalik.

DEIAK |

• Eskoriatzaz eta Ibarraundi museoaz DVDa

Eskoriatzaren eta Ibarraundi museoaren gaineko DVDa salgai dago museoan bertan. 9 bat minutuko grabaketa horretan, Eskoriatzako, museo eta Debagoieneko irudiak erakusten dira. 6 euro da. Uztailan, museoak honako ordutegia du: astegunetan, 09:00-13:30 eta 16:00-19:00; asteburu eta jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

IKUSKIZUNAK |

• Nazioarteko bi talderen folklore jaialdia Arrasaten Portugaleteko Nazioarteko Folklore Jaialdian izan diren bi taldek ikuskizuna egingo dute egunetan, hilak 28, Monterron parkean, 22:30ean. Tuva Errepublikako Sayani eta Futuna uharteetako Lupe o Malae Fenua dira aurtengo taldeak.

• Helduendako magia emanaldia Arrasaten

Fermin magoak emanaldia egingo du datorren egubakoitzean, hilak 29, 3.60 aretoan, 23:00etan.

LEHIAKETAK |

• Gomendatzen Dizut...

lehiaketa zabalik dago Arrasate eta Bergarako gazte informazio zerbitzuek oporretako gomendio lehiaketa antolatu dute. Laster egongo da www.aizue.com webgunetik parte hartzeko aukera. Horrez gain, betetzeko fitxak daude bulegoetan bertan edo www.arrasate-mondragon.org/Udala/Txostenak/GomendatzenDizut05B helbidean.

TURISMOA |

• Turismo eskaintza berezia antolatu dute Oñatin

Turismo eskaintza berezia prestatu du Udalak. Natur ibilbide gidatuak egingo dituzte: hilaren 30ean, zapatua, Araotzera joango dira; eta 31n, domeka, Arantzazu erreka eta kobazuloak ikustera. Abuztuan ere egingo dituzte ibilbideok. Bestalde, Unibertsitateko informazio guneak honako ordutegia du: uztailan, asteburu eta jaiegunetan, 11:00-14:00; abuztuan, astegunetan, 15:30-19:00, eta asteburu eta jaiegunetan, 11:00-14:00.

Zorion agurrak



ARRASATE
Mikel Arregi
Uztailaren 25ean,
20 urte. Zorionak
Pollu! Lagun ezku-
tua.



ARRASATE
Enaitz Errasti
Uztailaren 22an,
3 urte. Zorionak
Martxel, Oihana eta
Markelen partez.



BERGARA
Aitor Sanchez
Abuztuaren 25ean,
27 urte. Zorionak!
Urte askotarako!
Hiru Mariak.



BERGARA
Aritz Rodrigo
Uztailaren 18an, 8
urte. Zorionak!
Amaia, Iraia eta
osaba-izebak.



BERGARA
**Hodei Gomez de
Balujera**
Abuztuaren 3an, 5
urte. Zorionak! Etxe-
koak eta Haritz.



BERGARA
Maialen Roman
Uztailaren 27an,
urtebete. Zorionak!
Arceli, Paul eta
familia.



BERGARA
Amaia Garitano
Uztailaren 28an, 12
urte. Zorionak! Urte
askotarako! Etxekoa
eta bereziki Aitor.



BERGARA
Idoia Agirrezabal
Uztailaren 30an, 5
urte. Zorionak! Urte
askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
**Olatz Ruiz de
Larramendi**
Uztailaren 29an, 5
urte. Familia, bere-
ziki, Iker eta Itziar.



BERGARA
Jon Maiztegi
Abuztuaren 4an, 5
urte. Zorionak!
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Aritz Bikuña
Uztailaren 24an, 23
urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Koadrilakoak.



ARETXABAETA
**Leire Gonzalez de
Martin**
Abuztuaren 12an,
urtetxo bat.
Zorionak. Etxekoak.



OÑATI
Izaskun Bolinaga
Uztailaren 23an
urtebetez.
Zorionak *Boli!*
Pastelak ederrak.



OÑATI
Iker Zubia
Abuztuaren 4an, 5
urte. Urte askotara-
ko! Josu, Miren,
Maite eta Naia.



ANTZUOLA
Aitor Atxa
Uztailaren 28an, 29
urte. Urte askotara-
ko eta muxu handi
bat! Familiakoak.



ELGETA
Ander Errasti
Uztailaren 26an,
urtebete. Zorionak
eta urte askotara-
ko! Familiakoak.



ELGETA
Alex Cristobal
Abuztuaren 2an,
urtebetez.
Zorionak *P!*
Lagunak.



APOTZAGA
Ainhoa San Migel
Abuztuaren 5ean, 11
urte. Zorionak eta
muxu handi bat.
Etxeko guztiak.

Zoriondu ARRASATE IRRATIAN



Ikaskideak, lagunak edo
senitartekoak zoriondu
nahi badituzu, **ARRASATE
IRRATIAK**
egunero ematen dizu aukera
hori.

Bidali eskaria:
irratia@goiena.com helbidera
edo deitu 943 71 17 31
telefonora.

Egunero,
zorion agurren tartea
ARRASATE IRRATIAN

FM107.7



Hildakoak

Eulalia Tubilla Gonzalez
Arrasaten, uztailaren 22an. 79 urte.

Juan Villar Eleizburu
Elgetan, uztailaren 23an. 95 urte.

Felix Garai Igartua
Arrasaten, uztailaren 22an. 84 urte.

**ESKELAK
ASTELEHENEKO
GOIENKARIAN**

82 euro
943 76 92 71

URTEURRENA

**Nerea
Martin Urtzelai**

Aretxabaletan hil zen 2002ko uztailaren 26an, 21 urte zituela.

*Izarraren disdira zure begiradia,
eguzkixan argixa zure barria,
haixian zirrixak zure laztanak,
holan Nere zaitxugu oroitzen.*



Zure kuadrilia:
Olaia, Olatz, Ane, Aitziber, Izaskun, Miren eta Lierni.
Aretxabaletan, 2005eko uztailaren 25ean.

Jaiotakoak



Eneko Villar Moreno
Arrasate • 3,020 Kg. Uztailak 18.
Gurasoak: Joxe eta Nekane
(Arrasate). Argazkian: Eneko
amaren besoetan.



Oihan Azkarate Arriolabengoa
Aramaio • 3,250 Kg. Uztailak 18.
Gurasoak: Cesar eta Larraitx
(Arrasate). Argazkian: Oihan
gurasoekin.



Garikoitz Umerez Zubikarai
Arrasate • 2,700 Kg. Uztailak 18.
Gurasoak: Esteban eta Leire
(Arrasate). Argazkian: Garikoitz
amaren besoetan.



Markel Altube Ayesta
Oñati • 3,470 Kg. Uztailak 19.
Gurasoak: Iban (Oñati) eta Amaia
(Orozko). Argazkian: Markel
amaren besoetan.



Laura Garcia Aguado
Arrasate • 3,300 Kg. Uztailak 19.
Gurasoak: Jose eta Maria
(Arrasate). Argazkian: Laura
amaren besoetan.



**Aimar Salaberri Velez de
Mendizabal**
Arrasate • 3,900 Kg. Uztailak 20.
Gurasoak: Jose eta Errose
(Arrasate). Argazkian: Aimar lo.



Einer Rodrigo Gonzalez
Bergara • 3,575 Kg. Uztailak 20.
Gurasoak: Clemente eta Marta
(Bergara). Argazkian: Einer aita-
ren besoetan.



Enaitz Lizundia Nafarrate
Ondarroa • 3,970 Kg. Uztailak 21.
Gurasoak: Igor (Ondarroa) eta
Mirari (Arrasate). Argazkian:
Enaitza aitaren besoetan.



**Nahikari Peñagarikano
Zubikarai**
Antzuola • 2,820 Kg. Uztailak 21.
Gurasoak: Aitor eta Ainhoa
(Antzuola). Loli amandrearekin.



Ander Gorosarri Bolinaga
Aretxabaleta • 3,540 Kg. Uztailak
22. Gurasoak: Igor (Eskoriatza)
eta Aitziber (Aretxabaleta).
Argazkia: Ander amarekin.

Uztailaren 25a: 054 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, uztailak 25, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Eskaintza:

Harpidetza kuota, 35 euro

2005 osoko harpidetza kuota: 35 euro.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.



Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

Sei gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste sei gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAN bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).

- | | |
|---------------------------------------|-------------------------------------|
| • Damaso Gallastegi
(Bergara) | • Jose Ramon Biain
(Oñati) |
| • Arantzazu Zubizarreta
(Arrasate) | • Agustin Bolinaga
(Oñati) |
| • Nerea Vicente
(Bergara) | • Jose Mari Gabilondo
(Antzuola) |

Irailaren 5eko sariak

- Bi sari FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi sari Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAN bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi gonbidapen).



TUNISIARA BIDAIA ZORAGARRIA!

Bi lagunendako bidaia zoragarria zozketatuko dugu irailean, ASTELEHENKO GOIENKARIAren harpidedunen artean. Zorte on!

Laguntzailea: **VIAJES IBERIA**

Gaur irratian

Arrasate Irratia

FM 107.7

'Elkarrizketa bilduma' | 10:00

Aste osoan zehar, hainbat elkarrizketa

Azken hilabeteotan egindako elkarrizketa bilduma eskainiko digute. Besteak beste, honako hauek: EHNE-ko Larraitz Sasieta, baserritarrendako laguntzen gainean; Txiki Fale-ro, ESAITek antolatutako mendi martxaren gainean; eta Irene Zenitagoia lore adituari egindakoak.

Loiola Irratia

FM 99.8

'Kalez kale' | 12:05

Hondakindegia gainean jardungo dute

Astelehenean ez da saiurik egongo. Martitzenean, berriz, Deba-goieneko Mankomunitatearen erabaki baten gainean jardungo dute: inausketa eta lorezaintza hondakindegia AKElko plantara eramatearen gainean, hain zuzen ere.

Arrate Irratia

FM 93.6

'Herrietako kronikak' | 12:00

Ermua, Zumarraga eta Urretxuko albisteak

Euskadi Irratia

FM 104.4

'Faktoria' | 10:00-12:00

Gasteizko blusen eguna gainean berriketaldia

Radio Euskadi

FM 98.2

'Más que palabras' | 09:00-12:00

Manuel Pimentel politikariari elkarrizketa

Gaur telebistan

GOITB



Gari abeslariari elkarrizketa, 'Ilunpean' saioan

Oihana Elortzak Gari abeslari ezaguna elkarrizketatuko du. 13:00etan eta 17:00etan dago ikusteko aukera.

11:05 Marrazki bizidunak: *Sherezade* eta *Lazkao Txiki*.

13:00 Ilunpean. Oihana Elortza kazetariak Gari abeslariari egindako elkarrizketa ikusi eta entzuteko aukera izango dugu.

13:30 Harmailatik. Tourra. Julen Iriondoren eskutik.

14:30 Jaiak 2005: Antzuolako jaiak.

15:00 Klonk. Hip-hop ikuskizuna.

15:30 Marrazki bizidunak: *Ipar haizearen erronka*.

16:30 Eguzki Lore. 17:00 Ilunpean. Gari abeslari ezagunari elkarrizketa, Oihana Elortzaren eskutik.

17:30 Klip@. Euskal Herriko eta atzerriko musika talde onenen bideo klipuz gozatzeko aukera.

17:45 Jaiak 2005. 18:15 Marrazki bizidunak, *Iratxo Magikoa* eta *Lazkao Txiki*.

19:45 Chiloe. Finlandiaren gaineko erreportajea.

20:15 Klip@. Musika talde onenen bideo klipak, ordu laurdeneko saioan.

20:30 Jaun ta jabe. 21:00 Harmailatik. Tourra.

22:00 Emisio amaiera.

ETB 1



Estropadak: Correos-BBK saria, TKE Ligako proba

Lekeitiotik zuzenean eskainiko digu ETBk XX. Correos-BBK bandera, 12:00etan. TKE Ligarako puntuagarria da.

07:10 Udanbeblai. 07:40 Oporrock 2005.

08:05 Tik Tak circus.

08:30 Betizu. *Sam eta Max*, *Ziegak* eta *herensugeak*.

11:00 Meza santua. 11:55 Estropadak. TKE Liga.

13:30 Betizu. *Godzilla*.

14:00 Gaur Egun 1. 14:35 Eguraldia.

14:40 Betizu. *Pokemon*, *Bizargorri*, *Sorgin aspertua*, *Euli ipuinak* eta *Bugs Bunny*.

17:30 Pilota. 18:30 Iparraldearen orena.

18:35 Pilota. 19:55 Txirrindularitza. Ordiziako saria.

20:20 Eguraldia. 20:28 Gaur egun. 20:50 Shin Chan.

21:20 Saloi dantzak 2005. 22:20 Wazemank.

23:10 Ero eta bero. 00:25 Kar kar kluba.

00:40 Egi bidean. 00:50 Zinea. *Zirkuitu gizona*.

02:20 Teilatupean.

ETB 2



'Doctoras de Philadelphia' saio arrakastatsua, 23:45ean

Transplantea egin beharra duen neska batendako giltzurrun bilajardungo dute; aitarengana joko du.

07:00 Del pais de los vascos.

07:40 Rutas de solidaridad.

08:45 Luar. 11:10 Stargate.

12:05 Se ha escrito un crimen. 13:50 Date el bote. Carlos Sobera aurkezlearekin, lehiaketa.

14:58 Teleberri 1. 15:50 Eguraldia.

15:55 Cine aventura. *Sargento Bilko*.

17:35 Siempre Cine. *La carrera del siglo*.

20:30 Euskal Herria, la mirada magica. 20:58 Teleberri 2.

21:50 Eguraldia. 21:55 Nip tuck: a golpe de bisturí.

23:45 Doctoras de Philadelphia. Ospitaleko baliabide eskasia izango du ardatz asteleheneko kapituluak.

01:25 La zona muerta. 02:20 Zoombados.

03:10 Date el bote lehiaketa, Carlos Soberarekin.

04:05 Latinoamerika kantari. 05:40 El camino de Santiago en Euskal Herria.

06:30 Gemas. 07:00 Recetas de la abuela.

07:15 Musika eta irudiak.

TVE 1



'Corazón de verano', Anne Igartibururekin, 14:30ean

Pertsonaia ezagunen opor kontuak eta era guztietako txutxumutxu eta edertasun aholkuak, elorrikoarekin.

06:00 Canal 24 horas. 07:30 Telediario matinal. Igor Gomezekin eta Susana Rozarekin.

09:00 Los desayunos de TVE. Pepa Buenorekin.

11:05 Saber vivir. 11:45 Por la mañana. Elkarrizketak, lehiaketak eta bestelakoak egiten dituzten magazina. Ines Ballester eta Manuel Gimenez kazetariarekin.

14:00 Telenorte. Informativo territorial. 14:30 Corazón de verano. Txutxumutxuen gaineko saioa Anne Igartiburu aurkezlearekin.

15:00 Telediario 1. Ana Blancok eta María Escariok aurkeztuta.

15:55 El tiempo. 16:00 Amor Real. 16:50 Obsesion. Telesaioa.

17:50 El enemigo en casa. 18:00 Cuéntame cómo pasó.

20:00 Gente. 21:00 Telediario 2. 22:00 Ana y los siete.

23:30 59 segundos. 01:30 Telediario 3. 02:00 Deporte.es. 02:30 Los vigilantes de la playa. 03:30 Canal 24 horas.

La 2



'El dia del Señor' saioa, Santiagotik eskainiko dute

Astelehena Santiago Apostoluaren eguna dela eta, handik eskainiko dute meza, 10:15ean.

07:30 Los Lunnis. *Oso Yogi*, *Ed*, *Edd* y *Eddy*, *Aventuras en pañales* eta *Fimbles*.

09:30 Viva S Club. *Un problema con Maria*.

10:15 El dia del Señor. Santiagoko eguna.

12:15 Los vigilantes de la playa. *Salvavidas confidencial*.

13:00 Los Lunnis. *Los Lunnis: la serie*, *Agallas*, *El perro cobarde*, *Digimon* eta *Los minimonstruos*.

15:15 Saber y ganar. Jordi Hurtadorekin.

15:45 Grandes Documentales. *Renacer de un arrecife*.

16:55 Pueblo de Dios. 17:30 Los Lunnis. *La momia*, *Los Lunnis: la serie*, *Cyberchase* eta *La vaca Connie*.

19:30 Revista a su salud. Claudio Mariscalekin.

20:00 Documental. 20:30 Mi extraña familia.

21:00 Vivir con Mr. Cooper. 21:55 Sorteo de la Bonoloto.

22:00 La 2 Noticias. 22:35 El Tiempo. 22:40 Cine de verano. *El gran duelo*.

00:25 Igeriketa. Munduko txapelketa.

02:00 Gasteizko Jazz Jaialdia. 03:15 Gata salvaje.

Antena 3



Carlos Sobera beste lehiaketa bat aurkeztuko du, astelehenean

Lehiaketen aurkezle gisa definitu dezakegu Sobera; *¿Quién quiere ser millonario?* izango du hurrengoa.

06:00 Las noticias de la mañana. 08:00 Megatrix: *Hombre lobo en Campus*, *Punky Brewster*, *Cedric*, *Jimmy Neutron*, *Cosas de gemelas*, *ArtAttack*, *El show de Bernie*, *Mac* eta *El principe de Bell Air*.

13:30 MacGiver. 14:00 Los Simpson. 15:00 Noticias 1.

15:45 Pasion de gavilanes. 18:00 Estoy por ti. 19:00 El diario de Patricia.

20:00 ¿Quién quiere ser millonario?

21:00 Noticias 2. 21:45 El peliulón. *Una rubia muy legal*. Elle Woods institutuko neska ezagunena da. Ikasle ona da, arrosa koloreagustatzen zaio eta ile zoragarria dauka. Warner da bere mutil laguna. Elkarrekin afaletzera joaten dira; hantxe, berarekin ezkontzea eskatu beharrean, mutilak esaten dio ez dela behar beste neska formala bere familiarendako. Ellek, baina, ez du amore ematen.

00:00 7 dias, 7 noches. 02:00 Noticias 3. 02:15 Televanta. 05:00 Errep.

06:00 Informativos Telecinco matinal. 09:25 Embrujadas. 10:00 O.T. 11:00 El programa de verano. Oscar Martinez eta Maxim Huertarekin. Karlos Argiñano sukaldariaren saioa dauka tartean. 14:30 Informativos Telecinco. Hilario Pino eta Begoña Chamorroarekin. 15:15 Informativos Telecinco País Vasco. 15:30 Aquí hay tomate. 16:30 O.T. 17:00 A tu lado. 19:35 Allá tú. 20:30 Informativos Telecinco. Angel Barcelórekin. 21:15 O.T. 22:00 Medical Investigation. 23:00 Justicia ciega. 00:00 TNT. 02:00 Informativos Telecinco. 02:30 Madrugada de cine: *Alta traición*. Zuzendaria: Tibor Takacs. Aktoreak: Rutger Hauer, Mark Dacascos, Ivonne Scio, Patrick Dreikauss. Katie 12 urteko neskatua da. Bere aita, hegazkin pilotua, istripuz hil delako, amonaren etxera joaten da Simon aniarekin batera, oporturak pasatzera.

Tele 5



'Medical Investigation' telesaioa, 22:00etan

Bizitegi-ingurune baten bizi diren umeak gaixotzen hasten dira. Aurkikuntza handia egiten dute.

07:35 Informativos Telecinco matinal. 09:25 Embrujadas. 10:00 O.T. 11:00 El programa de verano. Oscar Martinez eta Maxim Huertarekin. Karlos Argiñano sukaldariaren saioa dauka tartean. 14:30 Informativos Telecinco. Hilario Pino eta Begoña Chamorroarekin. 15:15 Informativos Telecinco País Vasco. 15:30 Aquí hay tomate. 16:30 O.T. 17:00 A tu lado. 19:35 Allá tú. 20:30 Informativos Telecinco. Angel Barcelórekin. 21:15 O.T. 22:00 Medical Investigation. 23:00 Justicia ciega. 00:00 TNT. 02:00 Informativos Telecinco. 02:30 Madrugada de cine: *Alta traición*. Zuzendaria: Tibor Takacs. Aktoreak: Rutger Hauer, Mark Dacascos, Ivonne Scio, Patrick Dreikauss. Katie 12 urteko neskatua da. Bere aita, hegazkin pilotua, istripuz hil delako, amonaren etxera joaten da Simon aniarekin batera, oporturak pasatzera.

Astean GOITBn

Astelehena, 25



'Klonk' | 15:00

Hip-hop ikuskizuna, astelehena alaitzeko

Dantza, musika eta irudia ikuskizun bakarrean ikusteko aukera izango dugu; Addictos Breakdance eta Logela Multimedia taldeek elkarlanean ekoiztutako emanaldia da.

Martitzena, 26



'Berriak' | 20:00, 22:00

Datorren astean, iluntzean bakarrik

Deiane Arrietak eskainiko dizkigu egunak eman dituen albisteak, 20:00 eta 22:00etan. Datorren astetik aurrera ez dugu bazkalosteko *Berriak* saiurik izango.

Eguaztena, 27



'Harmailatik' | 21:30, 23:00

Ordiziako txirrindularitza Klasikoa ikusteko aukera

Profesional mailako talderik onenak elkartuko dira. Goierrri telebistari esker, GOITBk ere lasterketako irudirik esanguratsuenak eskainiko dizkizue.

Eguena, 28



'Chiloe' | 14:15

Palmira ezagutzeko aukera izango dugu

Palmira, elezaharretako hiria izeneko erreportajea ikusteko aukera izango dugu. Siriako hiri horren berri ekarriko digu Maider Egues kazetariak.

Egubakoitza, 29



'Eguzki lore' | 21:00, 22:30

Nafarroako Kortez herriaren gainean

Danse Kortez izeneko erreportajeak Nafarroako erribera aldera eramango gaitu. Bizirik gorde dituzten ohiturak ezagutzeko ditugu, makil dantza, besteak beste.



2.

Merkealdiak

0%50

eraino

www.forumsport.com

SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

Uztailaren 28 tik abuztuaren 31ra

SPORTLAND ARRASATE
Garibai Etorbidea, 2-6

Hamarrekoa

JUAN SANGRE | MUSIKARIA

"Aretxabaletan bizi arren, Monterroneko konde txikia izaten jarraitu nahi dut"

Oihana Elortza

1. Zergatik utziko dio jotze-ari Fjord taldeak? Erritmo kontua izan da. Lau lagunek osatu dugu taldea: bi Ondarroakoak dira, bat Arantzakoa eta laugarrena, ni, Arrasatekoa. Orain arte lortu dugu elkartzea eta elkarrekin lan egitea, baina distantziengatik eta, oso zaila da. Bestetik, bakoitzak bere bidea jarraitu nahi du.

2. Noiz sortuko duzu talde berria? Burua beti dut martxan, baina denbora behar dut ditudan ideia eta asmoei forma emateko. Horretan hasiko naiz orain.

3. Baina hasi gaitzeko porrak egiten? Hasi, hasi. Dena dela, orain beste pentsaera bat dut. Zeretik hasi beharra sentitzen dut eta gauza puntualetan eta proiektu jakinetan parte hartu nahi dut.

4. Tourreko porrarik egin duzu aurten? Ez. Gainera, ez dut asko jarraitu, lanordutan harrapatu nautela lasterketek eta. Lance Armstrong erretiratzen denean zailagoa izango da porra asmatzea, hala ere.


5. Zer moduz bizi da arrasatear bat Aretxabaletan? Lantegi batekin arazoak ditugu eta orain arte ez hain ondo, baina tira. Dena dela, bizitza Arrasaten egiten dut oraindik, baina Aretxabaletan ere gero eta jende eta toki gehiago ezagutzen ditut.

6. Hala ere, Monterroneko konde txikia izango zara beti? Baietz espero dut.

7. Sangre gaitzizena da. Zergatik aukeratu zenuen? Ez nuen nik aukeratu. Lagun batzuek jarri zidaten. Lan batzuk J.Sangre izenarekin sinatu ditut eta beste batzuk J.Odola izenarekin. Ingelesez inoiz ez. Hemendik aurrera, agian.

8. Pride borrokarako duzun zaletasuna ere Fjord taldearekin bukatu da? Ez, ez. Hori bizi guztirako da. Duela gutxi ikusi nuen borroka bat eta azazkalak jaten aritu nintzen. Abuztuko ikusteko zain nago. Egunen batean Japoniara joango naiz borroka horiek gertutik ikusteko.

9. Noiz da hurrengo 'barbacoa'? Lagunekin egoteko antolatzen ditut



AINTZANE AGIRRE

Fjord taldeko abeslaria da Juan Sangre. Ekon eta Brutal Melody taldeetan ere ibili da. Musikaren inguruan bizi da. Oso zinezalea eta etxean 400 pelikula inguru ditu, gehienak VHS formatuan. Metal arloan egiten du lan. Fjord-ek azken kontzertua emanago du datorren egubakoitzean, Arrasateko 3.60 aretoan. Norvegiako fiordoetara joango da oporretan J.Odola?

barbacoak. Barre, hitz egin eta musika entzuten dugu. Saiheskia erretzen dut, normalean.

dos. Ez zait asko gustatu. Oso zinezalea naiz eta denetariko pelikulak ikusten ditut. Ez naiz arlo konkretu bateko pelikulak soilik ikusten dituen kritiko horietako bat. Musika bezala, pelikula onak, onak dira.

10. Zein da ikusi duzun azken pelikula? *La guerra de los mun-*



Biharamuna

Eñaut Arriaran

Sorginak eta sorginkeriak

Gaur, Santiago eguna izateaz aparte, badugu zer ospatu. Gure etxeko neskatilaxoak, **Ane** sorginak, bi urte bete-ko ditu. Bere aita begira-begira izan du goizean goizetik, adurra dariola, denboraren menpe bizitzea madarikatuz eta izango duen etorkizuna irudikatzen. Zein polita dagoen etxeko sorgintxoak.

Sorginekin jarraituz, bihar-ko hitzordua eginga dute **Anboto**-ko eta inguruko basoetako señora guztiek **Ferrerias** kalean. Bihar, **Santa Ana** ospatzeaz gain, burdina lantzen zen kale honetako taberna gehienek sorgintzeko edabe magiko berezitxo bat salduko dute: **Kubat**ik zuzenean ekarrita, mojitoa dastatzeko aukera izango dugu bere menta orritxo eta guzti. Izan ere, bihar, Santa Ana izateaz gain, beti hogeita sei izaten den eguna da, **Fidel Castro** garaile atera zen eguna eta horretarako propio nahastan da ron zuria eta limoi ura azukreakin. Bihar hogeita sei da eta beti izango da hogeita sei iraultzari eusteko kemena dagoen heinean.

Bitartean, oporrak gainean ditugunez, batzuek Kuba eta beste batzuek **Zugarramundiko** haitzulo sorginduak bisitatuko dituzue. Bailara honetako beste askok aldiz, **Espainiako** kostaldea aukeratzaren omen dugu. Etxebizitzaren hipotekak ez du urrutiagora joateko aukerarik uzten eta hala-beharrez txiringitoen lurraldera joan behar dugu. Dena dela, nora edo hara joan, bueltan, sorgindutako herri honetara etorri, errepidean kontuz ibili eta irailera arte.

www.goiena.net-eko

BLOG KOMERTZIALAK

Zure negozioa Interneten egoteko modu errazena eta merkeena

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:

www.goiena.net/blogak • Posta-e: azabarte@goiena.com • Tel.: 943 76 92 70

www.goiena.net/blogak/4quattro4
www.goiena.net/blogak/arregi
www.goiena.net/blogak/atai
www.goiena.net/blogak/azkarate
www.goiena.net/blogak/joseba
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas
www.goiena.net/blogak/ohiak

www.goiena.net/blogak/gallastegi
www.goiena.net/blogak/udalatz
www.goiena.net/blogak/vitoria
www.goiena.net/blogak/udalaitz
www.goiena.net/blogak/pando
www.goiena.net/blogak/korozabaleta

Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria

